# kantuz 97

Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen aldizkaria
Revista de la Confederación de Coros del País Vasco
Revue de la Confédération des Chœurs du Pays Basque

maiatza/mayo/mai 2012




# MUSIKASTEK 40 URTE

La Confederación de Coros de Euskal Herria y el Orfeón Donostiarra unen sus fuerzas

# kantuz 97

**Argitalpena/Edita:**
Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea /Confederación de Coros del País Vasco
**Helbidea / Dirección:**
San Juan kalea, 8, 20003 Donostia- San Sebastián (Gipuzkoa).
**Telefonoa / Teléfono:**
943 433 367
**Faxa / Fax:**
943 433 366
**E-posta/E-mail:** info@koralakeae.com
**Web:** www.koralakeae.com
**Babeslea/Patrocina:**
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Kultura Ministerioa/Consejería de Cultura del Gobierno Vasco, Ministerio de Cultura
**Koordinatzailea / Coordinadora:**
Nerea Pikabea Amundarain
**Diseinua / Diseño:**
Iñigo Puerta
**Kolaboratzaileak / Colaboradores:**
Iñigo Arizmendi (Diario Vasco), Yosune Canales Ocio, Amaia Garmendia, Dabid Jimenez Aldalur (Musikaste argazkiak), Gustav Adolf Rabus (fotos Gand Prix 2012 Maribor-Eslovenia), Estitxu Txurruka (Arabatxo eguna), Gorka Zabaleta (Baleike aldizkaria-Zumaia) (San Pedro Txiki argazkiak).
**Frantseseko itzultzailea / Traductrice:**
Yosune Canales Ocio

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE CULTURA
INSTITUTO NACIONAL DE LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA

L.G.: SS.386-93

## aurkibidea sumario sommaire




3-Editoriala
4-Arabako Haur Abesbatzen Eguna/Día Coral de Álava
5-Ostiraletako kantaldiak/Viernes corales
6-Bizkaiko Abesbatzen Eguna Mungian/Día Coral de Bizkaia en Mungia
7-BBK Konposizio Lehiaketa/Concurso de Composición BBK
8-Garaizarko Matsorriak, 25 urte
9-San Antonio Iralabarri Israelen eta Palestinan
10-Gaztelumendi abesbatza, 20 urte
11-Kantika Korala Bartzelonan
12-Udaberriko zikloa Bizkaian + Vocalia Taldea/Ciclo de primavera en Bizkaia + Vocalia Taldea
13-San Pedro Txiki, omenaldia/San Pedro Txiki, homenaje
14-Europa Cantat jaialdia/Festival Europa Cantat
15-Haur Koruen VI. Tailerra/VI. Taller de Coros Infantiles
16-Brady Allred Tolosan/ Brady Allred en Tolosa
17-Ganbara garaile Berriobeitin/Ganbara ganador en Berrioplano
18-Ganbara Txiki eta Mirrix katua
19-Hodei Truk, 25 urte
20-Otxote Festibala Kanbon/Festival d'Otxotes à Cambo les Bains
22-EAE eta Donostiako Orfeoia lankidetzan/EAE y el Orfeón Donostiarra en colaboración
24-Zuzendaritza Akademia uztailean/Academia de Dirección en julio
25-Eva Ugalde, epaimahaikide Europan/Eva Ugalde, jurado en Europa
26-Orfeoia-EHU Saria/Premio Orfeón-UPV
27-Musikaste+WYC
28-Eskifaia saritua Ejean/Eskifaia premiado en Ejea
29-Publizitatea/Publicidad




## EDITORIALA

Kantuzeko lagunok,

Donostiako egoitza berritik idatzitako lehen lerroak dituzue hauek. Lankidetza garai berri bati ekin dio EAEk Donostiako Orfeoiarekin, koru musika bultzatzeko asmoarekin eta elkarrekin koru proiektuak aurrera eramateko helburuarekin. Garai berri horren lehen ondorioa, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen egoitzaren tokialdaketa izan da; Donostian, Orfeoiaren eraikinaren ondoan izango du egoitza EAEk hemendik aurrera.
Eta egoitza berri horretatik Kantuzen zenbaki berri bat aurkezten ari gatzaizkizue; gure koru munduko albisteez eta ekintzez beterik dator.
Gure bi abesbatza zorionduz hasi behar dugu editorial hau; Ejea de los Caballerosen eta Berriobeitin sariak jaso dituzte bi koru horiek: Oñatiko Ganbara abesbatzak bost sari irabazi ditu Berriobeitin, eta Hondarribiko Eskifaiak, berriz, bigarren saria eskuratu du Ejea de los Caballeroseko Lehiaketan. Zorionak!
Bi ikastaro interesgarriren aurrerapena ere aurkezten dizuegu: batetik Zuzendaritza Akademia, azken urteotako ohiturari jarraituz uztailean Bilbon egingo dena. Eta bestetik, GAFek udazkenean Tolosan egingo duen ikastaroa, Brady Allred maisu handiak eskainiko duena; Utah-ko Salt Lake Chamber Choir abesbatzaren zuzendaria da Allred eta Tolosako entzuleak liluratu egin zituen duela bi urte Tolosako Abesbatza Lehiaketan.
Urteurrena betetzen duten gure federazioetako koruen berri ere ematen dizuegu, baita Arabatxoren eta Bizkaiko Abesbatzen egunen berri ere. Kanboko Otxote Festibalaz eta Orfeoia-EHUk ematen duten sariaz ere mintzatzen gara, etab.
Hori guztia zuen interesekoa izango delakoan,
Agurrik beroena,

**Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea**

## EDITORIAL

Amigas y amigos de Kantuz,

Estas son nuestras primeras líneas desde nuestra nueva sede en San Sebastián. EAE ha iniciado una nueva etapa de colaboración con el Orfeón Donostiarra, con el objetivo de impulsar la música coral y llevar a cabo proyectos corales conjuntos. Una de las consecuencias más inmediatas de esta nueva etapa de relación entre las dos instituciones ha traído consigo el traslado de la sede de la EAE a Donostia, a un edificio anexo a la sede del Orfeón Donostiarra.
Y desde esa nueva sede os presentamos un nuevo número de Kantuz, repleto de noticias y actividades de nuestro mundo coral.
Empezamos este editorial dando la enhorabuena a dos de nuestros coros que han sido galardonados en Ejea de los Caballeros y en Berrioplano: el coro Ganbara de Oñati ha obtenido cinco premios en Berrioplano, y Eskifaia de Hondarribia ha obtenido el segundo premio en el Certamen de Ejea de los Caballeros. Zorionak!
Os presentamos el avance de dos interesantes cursos: por una parte la Academia de Dirección, que como estos últimos años se celebrará en Bilbao el mes de julio, y por otro lado, el curso que va a organizar GAF en Tolosa en otoño con el gran maestro Brady Allred, director del Salt Lake Chamber Choir de Utah que hace dos años cautivó al público de Tolosa en el Certamen Coral.
Os damos cuenta también de coros de nuestras federaciones que cumplen aniversarios, los días corales de Arabatxo y el de Bizkaia, el Festival de Otxotes de Kanbo, el Premio Orfeón-UPV, etc.
Esperamos que todo ello sea de vuestro interés,
Un cordial saludo,

**Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea**

Jar ezazu iragarkia Kantuzen!
¡Anúnciese enKantuz!
Fais ta pub sur Kantuz!
info@koralakeae.com

# Ahotsak elkartuta Abesbatzen Egunean

**Arabako haur eta gazte abeslarien ahotsak pasa den maiatzaren 20an elkartu ziren Abesbatzen Egunean Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioan. Arabatxo Arabako Haur Abesbatzen Federazioaren jarduera nagusienetakoa da. Euren zuzendarien gidaritzapean errepertorio zaila abesten dute egun horretan abeslari guztiek batera.**

Haur Abesbatzen Eguna duela hamasei urtetik egiten da Arabako hiriburuan. Araban federatuta dauden haur koru guztien topagunea izan ohi da egun hori. Azken urteotan bi egun egin izan dituzte, adin desberdineko abeslariekin, baina aurrekontu murrizketen ondorioz aurten egun bakar batean elkartu dira. Beste urte batzuetan izan duten bezala, aurten ez dute zuzendari gonbidaturik izan. Beraz, abeslariek euren zuzendariekin landu dituzte partiturak.

5 eta 17 urte bitarteko abeslariek lan egiteko modu berria ikasten dute, baita errepertorio desberdina eta musika ulertzeko era desberdinak ere.

Aurre eskolania eta eskolania hauexek parte hartu dute aurten: Kanta-Kantari, Santa Maria-Zintzarri, Olabide, Udaberria, Samaniego eta Papargorri.

Maiatzaren 20an eguerdian emanaldi bat eskaini zuten Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioko areto nagusian. Arabatxoko abesbatzetako ehun bat abeslarik elkarrekin eman zuten egun hori. Errepertorioa, berriz, Arabatxoko zuzendarien artean adostutakoa izan zen. Txikienek Beatlesen, Michael Jacksonen eta Mikaren abestiak abestu zituzten, eta nagusienek, berriz, besteak beste Shrek filmeko kantuak eskaini zituzten. Zuzendari bakoitzak obra bat zuzendu zuen emanaldian.

### Koldo Uriarteren obra baten estreinaldia

Haur Abesbatzen Egunerako enkarguz egindako *Hiru ahizpa lapur* obra estreinatu zuten kontzertuan. Txabi Arnal idazleak eta irakasleak idatzitako ipuin bat kontatzen da abestian; jaiotzez ermuarra da Arnal, baina Araban bizi da. Koldo Uriarte arabarrak egin du musika; Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Betagarri, Gari, Bingen Mendizabal, Malu, David Bustamante eta Ana Torrojarekin lan egin du Uriartek, besteak beste. Gaur egun, Kapland pop talde ingeleseko kidea da.

**Info +**
http://arabatxo.net/



# Voces unidas en el Día Coral

**Las voces infantiles y juveniles alavesas se reunieron una vez más el pasado 20 de mayo en el Día Coral que se celebró en el conservatorio Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz. Se trata de la actividad más importante de Arabatxo, la Federación de Coros Infantiles de Álava. Los diferentes coralistas interpretaron un exigente repertorio bajo la batuta de sus propios directores.**

El Día Coral infantil se celebra desde hace dieciséis años en la capital alavesa. Consiste en un encuentro de todos los coros infantiles de Álava federados. En los últimos años se han celebrado dos días corales, con coralistas de diferentes edades, pero debido a los recortes presupuestarios este año se ha celebrado todo en un sólo día. Este año tampoco ha habido directores invitados, por lo que los coralistas trabajaron las partituras con sus propios directores.

Los coralistas, de entre 5 y 17 años, de la Federación aprenden nuevas formas de trabajo, repertorios diferentes y, por tanto, nuevas formas de entender la música.

Éstas son las pre escolanías y escolanías que participaron: Kanta-Kantari, Santa María-Zintzarri, Olabide, Udaberria, Samaniego y Papargorri.

El 20 de mayo al mediodía ofrecieron un concierto en el aula magna del Conservatorio Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz. Durante este día los cerca de cien coralistas convivieron con los y las participantes de los coros de ARABATXO. En cuanto al repertorio, éste está consensuado entre las directoras y directores de Arabatxo. Los más pequeños interpretaron obras de los Beatles, Michael Jackson y Mika, mientras que los más mayores cantaron melodías de la película Shreck, entre otros. Cada director/a dirigió una obra en el concierto.

### Estreno de una obra de Koldo Uriarte

El día del concierto se estrenó la obra *Hiru ahizpa lapur*, una obra encargada con motivo del Día Coral Infantil. Se trata de un cuento escrito por el escritor y profesor Txabi Arnal (nacido en Ermua, alavés de adopción). La música la ha compuesto el alavés Koldo Uriarte, quien ha trabajado con Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Betagarri, Gari, Bingen Mendizabal, Malú, David Bustamante y Ana Torroja, entre otros. Actualmente forma parte del grupo de pop inglés Kapland.

**Info +**
http://arabatxo.net/

# Ostiraletako kantaldiak

**Arabatxo Arabako Haur Abesbatzen Federazioko 300 bat abeslari Gasteizen antolatzen diren ostiraletako kantaldien zikloan parte hartu dute udaberri honetan. Vital Kutxako Gizartekintzak antolatzen du zikloa. Ostiralero Arabatxoko abesbatzek euren errepertorioko onena aurkezten dute.**

Vital Kutxa Fundazioko aretoan izaten dira kontzertuak. Abeslariak gazteak izan arren, parte hartzen duten taldeek ibilbide luzea egina dute Arabako abesbatza musikaren barruan; kalitatezko emanaldiak eskaintzen dituzte guztiek eta musikagile garaikideen obrak abesten dituzte emanaldietan, euskal folklorea ahaztu gabe.

"Arabatxo" Arabako Haur Abesbatzen Federazioaren laguntzarekin antolatzen dira Ostiral koralak edo ostiraletako kantaldiak. 1998ko otsailean egin ziren lehen aldiz, Arabako koru musikaren barruan ibilbide luzea egina zuten abesbatzei abesteko aukera bat emateko helburuarekin.

Papargorri Abesbatzak eman dio hasiera aurtengo denboraldiari; apirilaren 27an abestu zuten gasteiztarrek. Astebete geroago Katarintxo aurre eskolaniaren eta Kanta Kantari Vedruna eskolaniaren txanda iritsi zen.

Ekainaren 15era arte beste hainbat abesbatzen ahotsak entzun dira, hala nola, Udaberria eskolania, Olabide aurre eskolania, Samaniego, Olabide eskolania, Santa Maria Zintzarri eta Udaberria gazte abesbatzarenak.

Genero desberdinetako abestiak entzun daitezke kontzertu horietan, hala nola, haur kantu herrikoiak, eliz musika edota beste kulturetako doinuak; kasu askotan abesbatzek kantatzeko egindako konposizioak izan ohi dira.

**Info +**
http://arabatxo.net/
www.cajavital.es



# Viernes corales

**Las 300 voces infantiles de Arabatxo, la Federación de Coros Infantiles de Álava participan esta primavera en Vitoria-Gasteiz en el ciclo de los viernes corales, organizado por la Obra Social de Caja Vital Kutxa. Cada viernes los coros de Arabatxo han ido presentando lo mejor de su repertorio coral.**

Los recitales tienen lugar en el Aula Fundación Caja Vital Kutxa. A pesar de la edad de sus componentes, los grupos cuentan con una larga trayectoria dentro de la música coral alavesa, y tienen como denominador común la calidad de sus interpretaciones y la inclusión en sus conciertos de obras de compositores actuales, sin olvidar el folklore vasco.

Organizados con la colaboración de la Federación de Coros Infantiles de Álava "Arabatxo", los Viernes Corales comenzaron a celebrarse en el mes de febrero de 1998 con el objetivo de dar una oportunidad a las formaciones con una larga trayectoria dentro de la música coral alavesa.

El Coro Papargorri Abesbatza ha sido este año el encargado de inaugurar esta temporada; los vitorianos actuaron el 27 de abril. Una semana más tarde llegó el turno de la prescolanía Kantarintxo y la escolanía Kanta Kantari Vedruna.

Hasta el 15 de junio se han podido escuchar las voces de los coros Udaberria, prescolanía Olabide, Samaniego, escolanía Olabide, Santa María Zintzarri y Udaberria.

En estos conciertos se pueden escuchar piezas de todos los géneros, desde canciones populares infantiles hasta música religiosa o de otras culturas, en muchos casos escritas exclusivamente para ser interpretadas por estas masas corales.

**Info +**
http://arabatxo.net/
www.cajavital.es

# Abesbatzen egun handia Mungian

**Bizkaiko Abesbatzen Federazioko abesbatzek Abesbatzen Egun handia ospatu berri dute. Ekainaren 10ean 2.000 abeslari inguru elkartu ziren Mungian, abesbatza mugimenduaren indarra kalean erakusteko helburuarekin. Aurten Mungiako Jose Maria Arregi abesbatzari egokitu zaio antolaketa lana.**

Bizkaia osotik etorritako 62 abesbatzek euren ahotsak batu zituzten Mungiako Matxin enparantzan egindako kontzertuan. Lehendabiziko lau obrak txikienek elkarrekin abestuko dituzte. Ondoren gizonezkoen koruen txanda izan zen, segidan ahots zuriena, eta azkenik, ahots nahasietako abesbatzena; horiek guztiek launa kantu eskaini zituzten.

Aurten Federazioko talde teknikoak *Txakolin* obra hautatu du, kantu hori egin zuen Valentin Arin konpositorearen heriotzaren ehungarren urteurrenean. Alexander Lesbordesen *Ama* ere abestu dute, bere jaiotzaren ehungarren urtemuga ospatzeko.

Kontzertuaren amaieran Txanton Piperri operako *Azken Ereserkia* abestu zuten koru guztiek elkarrekin.

Luis Gamarra gizonezkoen abesbatza bateko abeslaria da eta egun honen antolaketako laguntzaileetako bat. "Senidetasun egun bat da eta urtean behin ikusten dituzun lagunekin egoten zara. Egun horretan haiekin hitz egiten duzu, abestu egiten duzu, indarrak biltzen dituzu … Egun ederra da! Azken aldian galdu egin da pixka bat tabernetan abesteko ohitura".

"Abesbatzen Eguna zerbait desberdina da. Argi dago kontzertuaren kalitatea ez dela ona izaten, askotan klimak ez baitu laguntzen: haizea ibiltzen da, beroa egiten du, batzuetan zarata handia dago... Plaza ez da tokirik egokiena kantatzeko, baina ezingo litzateke beste modu batean egin, eta egun horretan jendeak ikusi egin behar gaitu, gure musika kalera ateratzeko momentua da".

**Info +**
www.baekoralak.org



# Gran Día Coral en Mungia

**Los coros de la Federación de Bizkaia celebraron su gran Día Coral el 10 de junio. Este año los cerca de 2.000 coralistas se reunieron en Mungia, con el objetivo de mostrar la fuerza del movimiento coral en la calle. Este año le ha correspondido la organización al coro José María Arregi de Mungia.**

Los 62 coros procedentes de toda Bizkaia unieron sus voces para el concierto que se celebró al mediodía en Matxin plaza de Mungia, donde primeramente los más pequeños interpretaron conjuntamente cuatro obras. Les siguieron los coros de voces graves, los de voces blancas adultas y finalmente los coros de voces mixtas, que también cantaron cuatro obras cada uno de ellos.

Este año el equipo técnico de la Federación ha seleccionado la obra *Txakolin*, con motivo del centenario del fallecimiento de su compositor, Valentín Arin, y la obra *Ama* de Alexander Lesbordes, para conmemorar el centenario de su nacimiento.

Al final del concierto, todos los coros unidos interpretarán conjuntamente el *Himno Final* de la Ópera Txanton Piperri.

Luis Gamarra es coralista de un coro de voces graves y uno de los colaboradores en la organización de este evento. "Es un día de confraternidad con los compañeros a los que ves una vez al año. Ese día conversas, cantas, cargas pilas… ¡Es muy entrañable! Se ha perdido un poco el juntarse para ir cantando por los bares".

"El Día Coral es algo diferente. Está claro que la calidad del concierto no es buena, pues las condiciones climatológicas tampoco ayudan mucho: hace viento o hace calor, a veces hay mucho ruido…. La plaza no es el mejor sitio para cantar, pero no se podría hacer de otra forma, y se trata de que la gente nos vea, que saquemos nuestra música a la calle".

**Info +**
www.baekoralak.org



# Basajaun eta lamien gaua

**Hainbat euskal pertsonaia mitologiko eta fantastiko Bilboko BBKren aretoan elkartu ziren pasa den apirilaren 28an. Bizirik baleude bezala sentitu zituzten entzuleek, BBK Sari Nagusiko XV. Konposizio lehiaketako obra sarituak aurkeztu zituztenean. Euskal mitologia izan da Bizkaiko Abesbatzen Federazioak antolatzen duen lehiaketaren aurtengo gaia. Kontzertu amaieran, sariak banatu zitzaizkien euren egileei.**

Maria del Rosario Montelongo, Luis Elizalde eta Manuel Angel Burgos de la Rosa; hiru konpositore horiek hunkituta jaso zuten saria eta pozik egindako lanarengatik. Aurretik epaimahaiak egin behar izan zuen, ordea, saria ze obrarentzat izango zen erabakitzeko lan zaila. Irma Rutkauskaite, Ius Perez eta Luis A. Gamarra aritu ziren eginkizun horretan.

Honako abesbatza hauek parte hartu zuten: Durangoko Doinuzahar Abesbatzak Kanaria Handiko Las Palmaseko Maria del Rosario Montelongoren *Gaueko, el Señor de la noche* obra abestu zuen; lan horrentzat izan zen lehen saria. Horrez gain, Josu Elberdinen *Segalariak* eta Julen Ezkurraren *Aritz adarrean-Katalin* abestu zituzten.

Bilboko Jatorki Abesbatzak kantatu zuen bigarren obra saritua, Luis Elizalde nafarrak egindakoa: *Anbotoko Mari*. Madinaren *Oles Eskonberria* eta Andoni Arregiren *Ene Izar Maitia* ere eskaini zituzten.

Eta azkenik, Bilboko Inmakuladako Abeslariei egokitu zitzaien hirugarren obra saritua aurkeztea, *Milia Lasturkoreak Eresia*, Bartzelonako Manuel Angel Burgos de la Rosak eginiko doinua. Javi Bustoren *Maritxu Nora Zoaz* eta Alberto Faveroren *Te quiero* ere abestu zituzten.

## Obren lehiaketa

Bizkaiko Abesbatzen Federazioak "BBK Sari Nagusia" Konposizio Lehiaketa antolatu du berriro. Hurrengoa hamaseigarren lehiaketa izango da eta naturaren lau osagaiak (sua, ura, airea eta lurra) jasotzen dituzten obrak eskatzen dira; gai horiek elkarrekin edo banaka erabili daitezke. Era guztietako ahotsek kantatzeko (gehienez lau) konposizioak izan beharko dute, euskaraz edo gaztelaniaz.

Lehiaketaren helburua kantatzeko moduko errepertorioa sortzea da eta musikari dagokionez kantuak duen interesak garrantzia handiagoa izango du zailtasunak berak baino. Beraz, koru amateur batek kantatzeko moduko obra izan behar du.

Obrak jasotzeko epea 2012ko uztailaren 6an amaituko da.

**Info +**
www.baekoralak.org



# Noche de basajaun y lamias

**La Sala BBK de Bilbao se convirtió el pasado 28 de abril en el punto de encuentro de varios personajes fantásticos y mitológicos vascos, que cobraron vida mediante la presentación de las obras premiadas de la XV. Edición del concurso de composición "Gran Premio BBK". El concurso basado este año en esa temática, lo organiza la Federación de Coros de Bizkaia. Al final del concierto se hizo entrega de los premios a sus autores.**

María del Rosario Montelongo, Luis Elizalde y Manuel Ángel Burgos de la Rosa, los tres compositores galardonados recogieron su premio, emocionados y satisfechos con el trabajo realizado. Previamente la ardua tarea de decisión correspondió a los miembros del jurado compuesto por Irma Rutkauskaite, Ius Pérez y Luis A. Gamarra.

Los coros que participaron fueron los siguientes: Doinuzahar Abesbatza (Durango), que interpretó la obra *Gaueko, el Señor de la noche* de María del Rosario Montelongo de Las Palmas de Gran Canaria, primer premio del concurso de composición; además de la obra premiada, incluyeron en su repertorio *Segalariak* de Josu Elberdin y *Aritz adarrean-Katalin* de Julen Ezkurra.

Jatorki Abesbatza de Bilbao interpretó la segunda obra premiada, del navarro Luis Elizalde: *Anbotoko Mari*, y también *Oles Eskonberria* de Madina y *Ene Izar Maitia* de Andoni Arregi.

Y finalmente, Inmakuladako Abeslariak de Bilbao interpretó el tercer premio, *Milia Lasturkoreak Eresia* del compositor barcelonés Manuel Ángel Burgos de la Rosa; además, cantaron las obras *Maritxu Nora Zoaz* de Javi Busto y *Te quiero* de Alberto Favero.

## Obras a concurso

La Federación de Coros de Bizkaia vuelve a convocar un año más el Concurso de Composición "Gran Premio BBK", que este año cumple ya la decimosexta edición. Para esta edición se requieren obras que contengan los cuatro elementos de la naturaleza (fuego, agua, aire y tierra), bien juntos o por separado. Deberán ser obras escritas para cualquier tipo de voces (máximo cuatro voces), en euskara o castellano.

El objetivo del concurso es crear un repertorio realmente cantable cuyo interés musical sea mayor que su dificultad, de tal manera que la obra pueda ser interpretada por un coro amateur.

El plazo de recepción de obras es el 6 de julio de 2012.

**Info +**
www.baekoralak.org

# Garaizarko Matsorriek 25 urte

**Bilboko Garaizarko Matsorriak gizonezkoen abesbatza bere historiako momenturik hunkigarrienean dago, hogeita bosgarren urtemugako ospakizunetan buru-belarri. Maiatzaren 18an egin zuten urteurreneko ospakizun nagusia Bilboko Juan Crisostomo Arriaga kontserbatorioan. Garai desberdinetako abeslariak eta zuzendari izandakoak batu ziren egun horretan.**

Abesbatzako sei abeslari zaharrenei omenaldi txiki bat egin zieten otsailaren 25ean, eta pasa den egunean, abesbatzako 34 gizonezkok kontzertu berezia eskaini zuten 2008tik korua zuzentzen duen Miren Zubietaren gidaritzapean.

Emanaldi horretan bereziki gogoan izan zuten Jose Luis Etxeberria "Txelu", abesbatzaren sortzailea eta lehen zuzendari izandakoa, eta baita hurrengo hamar urteetan korua zuzendu zuen Jose Antonio Kaltzada "Surti" ere. Kontzertuak bi zati izan zituen: lehendabizikoan hainbat bilbainada eta euskal folkloreko abesti ezagunenak abestu zituzten, Santutxuko Gaztedi euskal dantza taldearekin batera. Bigarren zatian, berriz, opera desberdinetako ariak eskaini zituzten, eta zeregin horretan lagundu zien Begoñako Orkestra Sinfonikoak, kontserbatorioko ikaslez osatutako musika taldeak: Verdiren Nabuco operako *Va Pensiero* eta Haendelen *Alelluia*.

## Italiako Toskanara bidaia

Italian izan da abesbatza ekainaren 7tik 10era bitartean. "Cantate Toscana" Abesbatzen Nazioarteko Jaialdian parte hartu dute Garaizarko Matsorriek, eta bertan bi kontzertu eskaini dituzte. Florentzia, Siena eta Pisa ere ikusi dituzte bidaian.

Italiako bidaiarekin amaitu dituzte 25. Urteurreneko ospakizunak.

## Historia laburra

1987an sortu zen gizonezkoen abesbatza eta Garaizarko Lagunak izena jarri zioten koruari. Bost urte geroago, Garaizarko Matsorriak deitu zioten taldeari. Garaizar Begoñako baserri baten izena zen. Bestalde, "Matsorriak" hitza garai bateko begoñarrei herri hizkeran deitzeko erabiltzen zen hitza da; inguru horretan txakolina egiteko izan zen ohiturarekin zerikusia du izenak. Iñaki Baroja presidenteak euren web gunean dion bezala, "…horrenbeste maite dugun Begoñako kaleetan, plazetan eta tabernetan kantatzea da gure nahia".

**Info +**
www.corogaraizarkomatsorriak.com



# 25 años de Garaizarko Matsorriak

**El coro de voces graves Garaizarko Matsorriak de Bilbao se encuentra en uno de los puntos más conmovedores de su historia, inmerso en las celebraciones de su 25 aniversario. El 18 de mayo celebraron el principal acto conmemorativo en el conservatorio Juan Crisóstomo Arriaga de Bilbao, donde reunieron a los diferentes coralistas y directores.**

El 25 de febrero realizaron un pequeño homenaje a los seis coralistas más veteranos y recientemente las 34 voces graves ofrecieron un concierto especial bajo las órdenes de Miren Zubieta, directora titular desde 2008.

En ese concierto se tuvo un recuerdo especial para José Luis Etxeberria "Txelu", fundador y primer director del coro, y para José Antonio Kaltzada "Surti", director durante diez años.

El concierto estuvo dividido en dos partes: en la primera parte el coro interpretó varias bilbainadas y algunas de las obras más conocidas del folklore vasco con el acompañamiento del grupo de danzas Gaztedi de Santutxu. En la segunda parte, cantaron arias de diferentes óperas, acompañados por la Orquesta Sinfónica de Begoña, formada por los alumnos del conservatorio: *Va Pensiero* de la ópera Nabuco de Verdi y *Alelluia* de Häendel.

## Viaje a la toscana italiana

El coro pisó tierra italiana entre el 7 y el 10 de junio. Garaizarko Matsorriak participó en el Festival Coral internacional "Cantate Toscana", donde ofreció dos conciertos. Aprovecharon el viaje para visitar Florencia, Siena y Pisa.

Con el viaje a Italia han finalizado las celebraciones del 25 aniversario.

## Breve historia

En 1987 se fundó el coro de hombres con el nombre de Garaizarko Lagunak. Cinco años más tarde, toma el nombre de Garaizarko Matsorriak. Garaizar era el nombre de un caserío de Begoña. Por otra parte, la palabra "Matsorriak" es una expresión vasca con la que se denomina a los begoñeses de antaño y que tiene mucho que ver con la tradición txakolinera que tuvo la zona.

Tal y como comenta el presidente Iñaki Baroja en la página web, "…nuestra vocación sigue siendo cantar en las calles, plazas y tabernas de esta querida Begoña".

**Info +**
www.corogaraizarkomatsorriak.com

# Palestinar kristauekiko elkartasuna

**Bilboko Iralabarriko San Antonio abesbatzak bira historikoa egin du Israel eta Palestinako lurretan. Jerusalemgo Hilobi Santuaren elizan kantatu duen Euskadiko eta estatuko lehen abesbatza da. Gainera, Belen eta Emaus ezagutzeko aukera izan dute biran, eta bigarren emanaldi bat eskaini zuten Jerusalemen.**

Pazko Igandean eskaini zuten emanaldia Jerusalemgo hilobi Santuaren elizan. Agintari asko ziren bertan, horien artean Mario Monti Italiako Errepublikako presidentea. Hilobi Santuko Armando Pierucci kapera maisuaren *Misa Luigi Giussanni* obra eskaini zuen Iralabarriko abesbatzak, Jerusalemgo Magnificat abesbatzarekin batera. Eliza jendez lepo beteta zela eta Maite Zugazaga zuzendari bikainaren gidaritzapean, Francken *Panis Angelicus* eta Haendelen *Alleluia* abestu zituzten.

Ondorengo egunetan, hiru kontzertu eskaini zituen koruak Emausen, Jerusalemen eta Belenen. Gabriel Faureren *Réquiem* eta estilo desberdinetako hainbat eliz kanta abestu zituzten. Bere musika lengoaia helarazteko modu sutsu horrekin entzuleak bereganatu zituen Iralabarriko abesbatzak hiru kontzertu horietan, eta zorionik beroenak jaso zituen emanaldi bakoitzean.

Iralabarriko San Antonio abesbatzak antolatu du bira. Jerusalemgo Magnificat abesbatzarekin duen harremanetik eta elkarlanetik sortu zen bidaia egiteko ideia; abesbatza horretan gehienak palestinar kristauak dira. Bidaia aurretik, hainbat kontzertu eskaini zituen abesbatzak dirua biltzeko, palestinar kristauen kolektiboaren egoeraz kontzientzia sortarazi eta eurei laguntzeko helburuarekin. Bertara joandakoan, kontzertu horietan jasotako 3.000 euro inguru eman zizkion Bilboko koruak frantziskotarren kustodiari eta horrekin amaiera eman zion duela urtebete abiatutako "Jerusalem Proiektua"ri.

2013an Euskadin Palestinako koruarekin hainbat kontzertu antolatzeko aukera aztertzen ari da Iralabarriko San Antonio abesbatza.

**Info +**
www.federagaf.net



# Solidaridad con palestinos cristianos

**La Coral San Antonio de Iralabarri de Bilbao realizó el pasado mes de abril una histórica gira por tierras de Israel y Palestina, y se ha convertido en la primera coral de Euskadi y de todo el Estado en cantar en el Santo Sepulcro de Jerusalem. Además durante la gira tuvieron la oportunidad de actuar en Belén y Emaús, y ofrecieron una segunda actuación en Jerusalem.**

La actuación en el Santo Sepulcro de Jerusalem tuvo lugar el Domingo de Resurrección. Con la asistencia de numerosas autoridades, entre las que puede destacarse la del presidente de la República de Italia, Mario Monti, la Coral de Iralabarri interpretó la *Misa Luigi Giussanni* del maestro de capilla del Santo Sepulcro Armando Pierucci conjuntamente con la Coral Magnificat de Jerusalem. Asimismo, la coral ofreció en un templo abarrotado y bajo la extraordinaria dirección de Maite Zugazaga, el *Panis Angelicus* de Franck y el *Aleluya* de Haendel.

En días posteriores la coral bilbaína ofreció tres conciertos en Emaús, Jerusalem y Belén. El repertorio se basó en el *Réquiem* de Gabriel Fauré y una selección de piezas sacras de diferentes estilos. Con su vibrante transmisión y personal lenguaje musical la coral de Iralabarri se ganó al público asistente a los tres conciertos y recibió afectuosas felicitaciones tras cada uno de ellos.

Cabe destacar que la gira ha sido organizada por la Coral San Antonio de Iralabarri a raíz del contacto y colaboración con la Coral Magnificat de Jerusalem, compuesta en su mayoría por palestinos cristianos. La coral entregó a la custodia Franciscana los aproximadamente 3.000 euros obtenidos de los conciertos benéficos realizados en Euskadi para concienciar y paliar la situación del colectivo de palestinos cristianos poniendo broche de oro al "Proyecto Jerusalem" lanzado hace más de un año por el coro bilbaíno.

La Coral San Antonio de Iralabarri está trabajando en la posibilidad de organizar varias actuaciones en el 2013 de la Coral Palestina en suelo vasco.

**Info +**
www.federagaf.net

# Gaztelumendi, hogeigarren urteurrena

**Larrabetzuko Gaztelumendi ahots nahasien abesbatzak hogei urte bete ditu eta ospakizunetan dabiltza. Hainbat emanaldi eskainiko dituzte urtean zehar beste abesbatza batzuekin batera. Martxoaren 23ko kontzertuan bereziki gogoan izan zituzten zuzendari eta abeslari ohiak.**

Martxoaren 23an egin zuten lehen ospakizuna Larrabetzun, Algortako Itxartu eta Barakaldoko Lagun Beti abesbatzekin batera. Jesus Antruejok zuzendu zituen hiru koruak.

Abeslari izandakoak eta lehenago Gaztelumendi abesbatza zuzendu duten zuzendariak kontzertu horretan izan ziren: Roberto Bienzobas, Juan Carlos Irizar (azkenean ezin izan zuen kontzertura joan), Jose Angel Robles eta Victor Diego. Eurek egindako lana eta ekarpenak aitortzeko omenaldi txiki bat egin zitzaien.

Abesbatza bakoitzak bere errepertorioko abestiak abestu zituen, eta amaieran Verdiren Nabuco operako *Va pensiero* abestu zuten hiru abesbatzek batera. Angel Antruejok lagundu zien pianoarekin.

## Ospakizun gehiago

Ekainaren 30ean eskainiko dute bigarren emanaldia eta honako koru hauek parte hartuko dute Gaztelumendirekin batera: Idoia Terrerosek zuzentzen duen Sodupeko Mendi Ona koruak eta Philippe Mendes Baionako kontserbatorioko irakasleak gidatzen duen hiri bereko Vocanti abesbatzak.

Abuztuaren 15ean izango da hirugarren kontzertua eta bertan harizko orkestra batekin, pianoarekin eta perkusioarekin abestuko du Larrabetzuko koruak. Emanaldirako osatu da musikarien taldea eta herriko jaietan kanpoan abestuko dute.

Urrirako beste emanaldi bat aurreikusita dute, eta seguru asko, Badajozko Montijoko Abesbatza Polifonikoarekin batera abestuko dute.

Txoriherriko eguberri abestien jaialdian parte hartuko dute eta horrekin amaiera emango diete urteari. Bailarako abesbatza hauek parte hartuko dute: Sondikako Txuma Olagüe Abesbatza eta Txuma Olagüe taldea, Derioko Ipar alde, Zamudio Kamara korala, Lezamako Ekidazu Abesbatza eta Larrabetzuko Gaztelumendi Abesbatza.

**Info +**
http://larrabetzukoabesbatza.blogspot.com.es/



# Gaztelumendi, vigésimo aniversario

**El coro mixto Gaztelumendi de Larrabetzu ha cumplido veinte años, y por ello se encuentran de celebraciones. A lo largo del año realizarán varias actuaciones acompañados por otras agrupaciones corales. En el concierto del 23 de marzo tuvieron un especial recuerdo para los ex directores y ex coralistas.**

La primera celebración se llevó a cabo el 23 de marzo en Larrabetzu, acompañados por los coros Itxartu de Algorta y Lagun Beti de Barakaldo. Los tres coros fueron dirigidos por Jesús Antruejo.

En este concierto se contó con la presencia de los anteriores coralistas y directores de Gaztelumendi, Roberto Bienzobas, Juan Carlos Irízar (que finalmente no pudo acudir), José Ángel Robles y Víctor Diego. Se realizó un pequeño homenaje y reconocimiento a todos ellos por su aportación y dedicación.

Cada uno de los tres coros interpretó algunas obras de sus respectivos repertorios, para terminar interpretando conjuntamente *Va pensiero* de la ópera Nabucco, de Verdi. Estuvieron acompañados al piano por Ángel Antruejo.

## Más celebraciones

El segundo concierto lo celebrarán el 30 de junio y contará con la presencia de la coral Mendi Ona de Sodupe dirigida por Idoia Terreros, la coral Vocanti de Baiona que dirige Philippe Mendes (profesor del conservatorio de Baiona) y el propio Gaztelumendi Abesbatza.

El tercer concierto tendrá lugar el 15 agosto. En el mismo actuará Gaztelumendi Abesbatza junto con una orquesta de cuerda, más piano y percusión. El conjunto ha sido constituido para la ocasión. El concierto se celebrará al aire libre en el marco del programa de fiestas locales.

Para octubre tienen prevista otra actuación en la que posiblemente actuará la coral Polifónica de Montijo de Badajoz.

Finalizarán el año con la celebración del concierto colofón del festival de villancicos del Txoriherri junto con las seis masas corales del valle: Txuma Olagüe Abesbatza y agrupación Txuma Olagë de Sondika, Ipar alde de Derio, Zamudio Kamara korala, Ekidazu Abesbatza de Lezama y el propio Gaztelumendi Abesbatza de Larrabetzu.

**Info +**
http://larrabetzukoabesbatza.blogspot.com.es/

# Euskaditik…mundura!



**Leioa Kantika Korala haur abesbatzak Euskaditik… mundura! Egitasmoa aurkeztu zuen duela gutxi Bartzelonako Pau Casals Auditorioan. Euskal musikagile garaikideek egindako hainbat obra abestu zituzten bizkaitarrek.**

Basilio Astulezek zuzendutako koruak Bartzelonara bidaiatu zuen eta Haur Abesbatzen II. Zuzendaritza Ikastaroan parte hartu zuen (Kataluniako "SCIC" Secretariat de Corals Infantils de Catalunya erakundeak antolatzen du). Kantikak kontzertu bat eskaini zuen martxoaren 10ean Bartzelonako Pau Casals Auditorioko aretoan. Bi zati izan zituen emanaldiak eta euskal musikagileen obrak abestu zituzten: Xabier Sarasola, Eva Ugalde, Junkal Guerrero, David Azurza, Josu Elberdin eta Javier Bustoren lanak, hain zuzen. Gainera, beste toki batzuetako egileen doinuak ere kantatu zituzten: Tobin Stokes, Vytautas Mishkinis, Stephen Hatfield, Sarah Hopkins, Lidia Adams konpositoreenak, besteak beste.

Arratsalde horretan bertan lan saio bat eskaini zuen Kantikak ikastaroko zuzendarientzat, eta igandean Basilio Astulez bera arduratu zen izena emandako zuzendariekin lan egiteaz.

Horrez gain, Heinrich Wolfrang Korngolden *Die Tote Stadt* operan kantatu du Leioa Kantika Koralak apirilaren amaieran; Stephan Anton Reckek zuzendu du musika eta Willy Decker arduratu da eszena zuzendaritzaz. Bilboko Euskalduna Jauregian aurkeztu zen, Operaren Lagunak Bilboko Elkarteak (ABAO-OLBE) antolatzen duen denboraldiaren barruan.

## Uda Europan barna

Astulezen abesbatzak Alsaciara bidaiatuko du uztailaren 18tik 23ra bitartean, Festival Choral du Villée jaialdian parte hartzeko. Kontzertu batzuk eskainiko ditu Mikrokosmos eta Filipinetako UPSA abesbatzekin batera. Irailaren 22an Nantesera joango dira, Haur Abesbatzen Urteroko Kongresuan parte hartzeko.

**Info +**
www.leioakantikakorala.com

**El coro infantil Leioa Kantika Korala presentó recientemente el programa Euskaditik… mundura! en la sala Pau Casals del Auditori de Barcelona. Los vizcaínos interpretaron varias obras compuestas por autores vascos contemporáneos.**

El coro dirigido por Basilio Astulez viajó a Barcelona, donde participó en el II. Curs de Direcció per a Cors Infantils que organiza el SCIC (Secretariat de Corals Infantils de Catalunya). Kantika ofreció un concierto el 10 de marzo en la sala Pau Casals del Auditori de Barcelona, que estuvo dividido en dos partes y que incluía obras de autores vascos: Xabier Sarasola, Eva Ugalde, Junkal Guerrero, David Azurza, Josu Elberdin y Javier Busto. Además, interpretaron obras de diversa procedencia: Tobin Stokes, Vytautas Mishkinis, Stephen Hatfield, Sarah Hopkins, Lidia Adams.

Esa misma tarde Kantika ofreció una sesión de trabajo abierta a los directores asistentes al curso y el domingo el propio Basilio Astúlez se encargó del trabajo con los directores inscritos.

Asimismo, Leioa Kantika Korala ha intervenido a finales de abril en la ópera *Die Tote Stadt*, de Heinrich Wolfrang Korngold, que con dirección musical de Stephan Anton Reck y escénica de Willy Decker ha sido representada en el Palacio Euskalduna de Bilbao, dentro de la temporada que organiza ABAO, la Asociación Bilbaína de Amigos de la Ópera.

## Verano por Europa

El coro de Astulez viajará a Alsacia entre los días 18 y 23 de julio para participar en el Festival Choral du Villée de Alsacia, donde ofrecerá varios conciertos junto a los coros Mikrokosmos y UPSA de Filipinas. El 22 de septiembre viajarán a Nantes con motivo del Congreso Anual de Coros Infantiles.

**Info +**
www.leioakantikakorala.com

EGILEA: J. ODRIOZOLA / ARGAZKIA: GORKA ZABALETA (BALEIKE -ZUMAIA)

# Udaberriko kontzertuak

**Abian da dagoeneko Bizkaiko Abesbatzen Federazioak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen duten udaberriko kontzertuen zikloa. Laurogei abesbatza baino gehiagok ehun emanaldi inguru eskainiko dituzte. Kontzertu horiek 1979tik antolatzen dira eta koru musika Bizkaiko zoko guztietara eramatea dute helburu.**

Martxoaren 3an hasi zen zikloa eta ekainaren 22ra arte 97 kontzertu eskainiko dira Bizkaia osoan. Horrez gain, 3 kontzertu emango dira Villarcayon, emanaldi bat Medina de Pomarren eta beste bat Castro Urdialesen.

Maiatzaren 18tik aurrera honako herrietan izango dira kontzertuak: Gallarta, Bilbo, Abadiño, Algorta, Barakaldo, Portugalete eta Mañarian, besteak beste.

Abesbatza hauek parte hartzen ari dira ahotsen arabera sailkatuta: 5 haur abesbatza, gizonezkoen 8 koru, emakumezkoen 16 abesbatza eta ahots nahasietako 54 koru.

Urte hauetan guztietan 3.000 kontzertu egin dira. Hogeita hamahiru urteotan herri guztietan antolatu da kontzerturen bat.

Info +

www.baekoralak.org



# Conciertos de primavera

**Ya está en marcha el ciclo de conciertos de primavera organizado por la Federación de Coros de Bizkaia y la Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa. Más de ochenta coros ofrecerán cerca de 100 conciertos, actuaciones que se organizan anualmente desde 1979 y cuya finalidad es llevar la música coral a todos los rincones de Bizkaia.**

El ciclo comenzó el 3 de marzo y hasta el 22 de junio se ofrecerán un total de 97 conciertos por toda la geografía vizcaína, además de 3 conciertos en Villarcayo, 1 en Medina de Pomar y 1 en Castro Urdiales.

Los próximos conciertos se celebrarán a partir del 18 de mayo en Gallarta, Bilbao, Abadiño, Algorta, Barakaldo, Portugalete y Mañaria, entre otros.

La distribución de los coros participantes, por voces, es la siguiente: 5 coros de txikis, 8 coros de voces graves, 16 coros de voces blancas adultas y 54 coros de voces mixtas.

A lo largo de estos años, se han ofrecido cerca de 3.000 conciertos. A lo largo de estos treinta y tres años, prácticamente todos los municipios han acogido, al menos una vez, uno de estos conciertos.

Info +

www.baekoralak.org

# Bidaia kultura desberdinetara

**Basilio Astulezek zuzendutako Vocalia emakumezkoen taldeak AVE izeneko emanaldi originala aurkeztu zuen joan den martxoaren 23an. XX eta XXI. Mendeko koru egitura eta kolore nagusienetako batzuk erakutsi zituzten kontzertuan.**

Euskaditik Filipinetara edo Japoniara, kultura desberdinetan eta musika sakroa ulertzeko modu berrietan barna bidaia bitxi bat egitea proposatu zuen programa horrek. Bilboko Campos Eliseos antzokian izan zen emanaldia, eta Xabier Sarasola, Eva Ugalde, John Pamintuan edota Kentaro Satoren obrak abesteaz gain, György Orban hungariarraren *6. Meza* eta Bob Chilcott britainiarraren *A Little Jazz Mass* obrak eskaini zituzten. Cristina Saldiasek lagundu zien pianoarekin, Elur Arrietak perkusioarekin eta Ernesto Gonzalezek kontrabaxuarekin.

Apirilean programa hori bera aurkeztu zuen Vocalia Taldeak Segoviako Eliz Musikaren Zikloan eta Arrasateko Juan Bautista Deunaren elizan.

## Sarasolaren obren estreinaldia

Disko baten grabaketa lanetan buru-belarri ari da Vocalia une honetan. Xabier Sarasolak ahots zurientzako egindako opus koral bat jasoko da diskoan eta konpositoreak berak lagunduko die pianoarekin. Beasainen aurkeztuko da diskoa jendaurrean datorren azaroaren lehen hamabostaldian.

Info +

www.vocaliataldea.com

# Viaje a diferentes culturas

**El coro femenino Vocalia Taldea dirigido por Basilio Astulez presentó el pasado 23 de marzo un original programa, AVE, mediante el cual se realizó un recorrido musical por algunas de las texturas y colores corales más importantes de los siglos XX y XXI.**

Desde Euskadi hasta Filipinas o Japón, este programa plantea un curioso viaje a diferentes culturas y maneras de entender la música sacra. En el Teatro Campos Elíseos de Bilbao, además de obras de autores como Xabier Sarasola, Eva Ugalde, John Pamintuan o Kentaro Sato, el programa incluyó la *Missa Nº6* del autor húngaro György Orbán y la *A Little Jazz Mass* del británico Bob Chilcott, con la colaboración de Cristina Saldias al piano, el percusionista Elur Arrieta y del contrabajista Ernesto González.

En abril Vocalia Taldea presentó este mismo programa en el Ciclo de Música Religiosa de Segovia y en la Iglesia de San Juan Bautista de Arrasate.

## Obras de Sarasola a estreno

Vocalia se encuentra inmerso en la preparación de su nuevo trabajo discográfico que recogerá el opus coral para voces iguales de Xabier Sarasola y contará con la participación del propio compositor como pianista acompañante. El disco será presentado ante el público en Beasain en la primera quincena del mes de noviembre.

Info +

www.vocaliataldea.com

# Hastapenak gogoan

**Hogeita bi urte luze igaro dira jada 1990. urtean Pili Aizpurua eta Maria Eugenia Doval ama-alabek San Pedro Txiki eta Txikienak haur abesbatza sortu zutela. Ordutik ehunka haur eta gazte zumaiarrek abestu dute koruan.**

Garai batean haur abeslari zirenak gaur egun jada guraso dira. Duela hogeita bi urte guraso gazte zirenak, berriz, aitona-amonak dira gaur egun. San Pedro Txiki eta Txikienak abesbatzetako partaide izan diren haur, gazte, guraso, aiton-amon eta gainerako guztiek, topaketa bat ospatu zuten igaro den apirilaren 13an.

Pili Aizpurua eta Maria Eugenia Doval ama-alabek izugarrizko adorea eta elkartasuna erakutsi dute abesbatzaren hastapenetik. Haurrak musikara hurbildu eta abestiez gozatzen erakutsi diete, eta beste hainbat balore helarazi ere bai. Eta hain zuzen ere lan hori eskertzea izan zen topaketaren helburua.

Abeslari ohiek abesti sorta bat eskaini zuten kontzertu horretan, tartean kantu afrikarrez osaturiko ekitaldi xelebre bat. Abesbatzako abeslariek, berriz, eurek asmaturiko abesti dotore bat eskaini zuten. Berrogeita hamar guraso inguruk ere abestu zuten. Koruko oroitzapenez osaturiko bideo bat erakutsi zuten ekitaldian.

Amaieran, parte-hartzaile guztiak agertokira igo eta Ander Urbieta abesbatzako partaide ohiak idatzitako bertso hunkigarri bat abestu zuten elkarrekin.



# El comienzo en el recuerdo

**Han pasado veintidós largos años desde que Pili Aizpurua y Maria Eugenia Doval, madre e hija, formaran las corales infantiles San Pedro Txiki y Txikienak. Las dos agrupaciones se crearon en 1990 y desde entonces más de cien niños/as y jóvenes de Zumaia han sido integrantes de esos coros.**

Los que antaño fueron niños/as hoy en día son madres y padres. Aquellos que hace veintidós años eran padres hoy en día son abuelas/os. Todos aquellos niños, jóvenes, padres y abuelos se reunieron el pasado 13 de abril en este encuentro conmemorativo.

La madre e hija Pili Aizpurua y María Eugenia Doval han demostrado un gran valor y solidaridad desde que el coro comenzó su andadura. Han acercado a los niños/as al mundo coral y han enseñado a disfrutar de la música coral, y también han transmitido muchos otros valores. Y ese fue precisamente el objetivo del encuentro: agradecer el trabajo realizado.

Los ex coralistas interpretaron en ese concierto un abanico de canciones, entre ellas una curiosa actuación con melodías africanas. Los miembros de la coral cantaron una elegante canción compuesta por ellos mismos. También participaron en el concierto un grupo de cincuenta padres. En el acto se proyectó un vídeo en el que se hacía un repaso a la historia del coro.

Al final, todos los participantes subieron al escenario y cantaron conjuntamente un emocionante bertso escrito por el ex coralista Ander Urbieta.

# Eliz doinuak Zumaian

**Zumaiako San Pedro abesbatzak kontzertu sakratua eskaini zuen joan zen martxoaren 31n herriko izen bereko parrokian. Luis Urteagak Erramu Egunerako idatzitako hiru motete, G.B. Martiniren *In monte Olivetti*, Joanes de Antxietaren *O Bone Jesu* edota G. Aichinger-en Regina Caeli obrak entzun ziren. Mendelssohnen edota Handelen oratorioetako zati batzuk ere abestu zituzten, baita gaur egungo musikagileen obrak ere.**

**Kontzertuari amaiera emateko Gabriel Faure musikagilearen *Cantique de Jean Racine* obra ezaguna eskaini zuten Amaia Aldalur Goikoetxearen gidaritzapean. Mari Carmen Azpeitia Iparragirre piano-jotzailea eta Jose Mari Azkue Castillo oboe-jotzailea ere lagun izan zituzten emanaldian.**

# Melodías sacras en Zumaia

**La coral San Pedro de Zumaia ofreció un concierto sacro el pasado 31 de marzo en la parroquia. Tres motetes escritos por Luis Urteaga para el Domingo de Ramos, *In Monte Olivetti* de G.B. Martini, *O Bone Jesu* de Antxieta o *Regina Caeli* de G. Aichinger. También se pudieron escuchar obras de los oratorios compuestos por Mendelssohn y Haendel, así como obras de compositores contemporáneos.**

**Para finalizar el concierto se ofreció la conocida obra de Gabriel Faure *Cantique de Jean Racine* bajo la batuta de Amaia Aldalur Goikoetxea. Colaboraron en el concierto la pianista Mari Carmen Azpeitia Iparraguirre y el oboísta Jose Mari Azkue Castillos.**

# Hitzen musikaz hazi



**Arrasateko Goikobalu Txiki eta Gazteko kantariak eta beste hainbat euskal musikarik bat egin zuten pasa den ekainaren 8an Arrasaten bertan. Iaz Baigorrin abiarazitako "Hitzen musikaz hazi" proiektuan parte hartu zuten Arrasateko koruko abeslariek Eñaut Elorrieta Ken Zazpiko abeslariarekin eta Et Incarnatus orkestrarekin batera. Euskal kantuak eskaini zituzten.**

Hainbat taldek parte hartu zuten emanaldi horretan: Et Incarnatus orkestra, Goikobalu Txiki eta Gazte, Eñaut Elorrieta, Juantxo Zeberio (pianoa), Amaren alabak taldea eta Baigorriko gaiteroak (Betti eta Patxi Bidart). Emanaldia ekainaren 8an izan zen Arrasateko Amaia Udal Antzokian.

Iazko apirilean eskaini zen lehen aldiz emanaldi hori Baigorrin; kasu hartan Tolosako ikastolako haur abesbatzak abestu zuen. Orduan emanaldiak izandako arrakasta ikusita, ikuskizun hori Euskal Herriko beste zokoetara eramatea erabaki zen, lekuan lekuko haur koruekin elkarlanean arituz eta abeslarien zein musikarien esperientzia aberasteko helburuarekin.

Errepertorioak betiko kantu herrikoi ederrak nahiz kantagintza berriko abestiak biltzen ditu, Ken Zazpi, Laboa edo Leteren kantuak moldatuta, eta baita Et Incarnatus orkestraren hainbat pieza instrumental ere.

**Info +**
http://goikobaluabesbatza.blogspot.com.es

**Los coralistas de Goikobalu Txiki y Gazte de Arrasate y varios músicos vascos unieron sus voces el pasado 8 de junio en Arrasate, dentro del proyecto "Hitzen musikaz hazi" iniciado el año pasado en Baigorri. Los coralistas de Arrasate interpretaron varias melodías vascas con la ayuda del cantante de Ken Zazpi Eñaut Elorrieta y con el acompañamiento de la orquesta Et Incarnatus.**

En ese concierto actuaron varios grupos: la orquesta Et Incarnatus, Goikobalu Txiki y Gazte, Eñaut Elorrieta, Juantxo Zeberio (al piano), el grupo Amaren alabak y los gaiteros de Baigorri (Betti y Patxi Bidart). El concierto se celebró el 8 de junio en el Teatro Municipal Amaia de Arrasate.

El primer concierto se ofreció en abril del año pasado en Baigorri; en aquel entonces la iniciativa contó con la participación del coro infantil de la ikastola de Tolosa. Tras el éxito obtenido, decidieron trasladar ese espectáculo a otros lugares de Euskal Herria, y así colaborar con los coros infantiles locales, enriqueciendo la experiencia tanto de los cantantes como de los músicos.

El repertorio incluye las bellas melodías populares tradicionales y también otras de la nueva era; se trata de arreglos de canciones de Ken Zazpi, Laboa o Lete, y también varias piezas instrumentales de la orquesta Et Incarnatus.

**Info +**
http://goikobaluabesbatza.blogspot.com.es

# Bi euskal talde Europa Cantat jaialdian

**Europa Cantat jaialdia Europako herrialde desberdin batean egiten da hiru urtez behin. Aurten Italiako Turinen egingo da, uztailaren 27tik abuztuaren 5era bitartean. Mundu osoko kantariek, zuzendariek eta musikagileek parte hartzen dute antolatzen diren 50 tailerretan.**

**Estilo desberdinetako musika lantzen da tailer horietan, eta aurten Arrasateko Goikobalu abesbatzak eta Mungiako Tantak Koralak parte hartuko dute. Arrasatetik 14 eta 17 urte bitarteko 13 abeslari joango dira Rakel Murgiondo zuzendariarekin. Espiritualen tailer batean parte hartuko dute. Mungiako Tantak Korala abesbatzak, berriz, pop eta disko musika landuko du beste tailer batean, baita Ellington Dukea musikari garaikide estatubatuarraren musika ere. Asun Lopez zuzendariarekin joango dira abeslariak.**

# Dos coros vascos en el festival de Europa Cantat

**El festival de Europa Cantat se celebra cada tres años en un país diferente de Europa. Este año se llevará a cabo en Turín, desde el 27 de julio al 5 de agosto. Coralistas, directores y músicos procedentes de todo el mundo participan en unos 50 talleres. En esos talleres se trabaja música de diferentes estilos, y este año van a participar los coros Goikobalu de Arrasate y Tantak Korala de Mungia. Desde Arrasate partirá un grupo de 13 jóvenes de entre 14 y 17 años, dirigidos por Rakel Murgiondo. Tomarán parte en un taller de espirituales. El coro Tantak Korala de Mungia participará en un taller de música pop y disco, y también en un taller del músico contemporáneo estadounidense Duke Ellington. Los de Mungia irán acompañados de su directora Asun López.**

# Kantu-dantza Hondarribian

**Hondarribiko Portuko eliza jendez lepo bete zen joan zen martxoaren 18an Haur Koruen VI. Tailerreko abeslarien kontzertua entzuteko. 7 eta 14 urte bitarteko 106 lagunek kantatu zuten, guztiak Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko abesbatzetan kantatzen duten gaztetxoak. Asteburuan prestatutako kantuak jendaurrean erakutsi zituzten.**

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatzen du urtero tailer hori. Gipuzkoako abeslari gazteenen artean musika eta harremanak lantzea du helburu. Bi taldetan banatuta lan egin zuten martxoaren 17 eta 18ko asteburuan: txikienak Zaragozako Javier Garcesekin aritu ziren; Zaragozako Auditorioko Gazte Abesbatza zuzentzen du eta harreman estua du Euskal Herriko abesbatzekin. Zaharrenak, berriz, Tolosako David Azurzarekin aritu ziren; Azurza Tolosako Hodei Truk abesbatzaren zuzendaria da, kontratenorea eta konpositorea. Rakel Murgiondo Arrasateko Goikobalu Txiki abesbatzaren zuzendaria pianoan lagun izan zuten bi zuzendariek entseguetan eta emanaldian. Nagore Orbeltzu tai chi irakaslearekin landu zituzten gorputz adierazpena eta koreografia. Begiraleekin egindako apaingarriak erakutsi zituzten kontzertuan.

Gipuzkoako bederatzi abesbatza hauek elkartu ziren Juan Sebastian Elkano aterpetxean: Hernaniko Musika Eskolako abesbatza, Oroith Txiki (Ordizia), Txepetxa (Donostia), Hodei Truk (Tolosa), Goikobalu Txiki (Arrasate), Ganbara Txikitxoak (Oñati), Txintxarri Txiki (Alegia), Orkatz Txiki (Zegama) eta Zumarte Musika Eskolako abesbatza (Usurbil).

Haur eta gazteentzat aproposak diren doinuak kantatu zituzten igandean, horietako asko koreografiaz edo gorputz-adierazpenez lagunduta. Txikienek kantatu zituztenen artean nabarmentzeko Victor Jara kantari txiletarraren *Duerme negrito*, David Azurzak moldatutakoa, eta Josu Elberdin pasaiatarraren *Kapitain, kapitain*, itsaslapurren eta itsasgizonen istorioa kontatzen duena. Handienek, berriz, Azurzak berak egindako edo moldatutako doinuak eskaini zituzten, *Berriz San Juan* edota inprobisazioan oinarritutako *Alleluia*, kontzertuan estreinatutakoa. Kirby Shaw musikagile estatubatuarraren *Jubilate Deo* doinuak ere gustura utzi zituen entzuleak.

**Info +**
www.federagaf.net



# Canto y baile en Hondarribia

**La iglesia de La Marina de Hondarribia se llenó de gente el pasado 18 de marzo para escuchar el concierto de los coralistas del VI. Taller de Coros Infantiles. Participaron en el concierto 106 coralistas de entre 7 y 14 años, todos ellos pertenecientes a coros federados en Gipuzkoa. Era la hora de exponer ante el público todo lo aprendido el fin de semana.**

Ese taller lo organiza todos los años la Federación de Coros de Gipuzkoa y su objetivo es trabajar la música y fomentar las relaciones entre los jóvenes. El fin de semana del 17 y 18 de marzo los coralistas trabajaron divididos en dos grupos: los más pequeños con Javier Garcés, director del Coro Juvenil de Zaragoza; Garcés mantiene una relación muy estrecha con los coros del País Vasco. Los más mayores trabajaron con David Azurza, director del coro Hodei Truk de Tolosa, contratenor y compositor. Tanto en los ensayos como en el concierto, los dos directores estuvieron acompañados al piano por Rakel Murgiondo, directora del coro Goikobalu Txiki de Arrasate. Trabajaron la expresión corporal y la coreografía con la profesora de tai chi Nagore Orbeltzu. En el concierto mostraron los adornos realizados con la ayuda de los monitores.

Éstos nueve coros de Gipuzkoa se concentraron en el albergue Juan Sebastián Elkano: coro de la Escuela de Música de Hernani, Oroith Txiki (Ordizia), Txepetxa (Donostia), Hodei Truk (Tolosa), Goikobalu Txiki (Arrasate), Ganbara Txikitxoak (Oñati), Txintxarri Txiki (Alegia), Orkatz Txiki (Zegama) y coro de la Escuela de Música Zumarte (Usurbil).

El domingo interpretaron melodías apropiadas para los jóvenes, muchas de ellas acompañadas de coreografía o expresión corporal. Los más pequeños, por ejemplo, interpretaron *Duerme negrito* del cantante chileno Víctor Jara, un arreglo realizado por David Azurza, y también la obra *Kapitain, kapitain* del pasaiatarra Josu Elberdin, que trata sobre piratas y marineros.

Los más mayores ofrecieron varias melodías compuestas o arregladas por Azurza, entre los que habría que destacar *Berriz San Juan* o un *Alleluia* basado en la improvisación; el público disfrutó muchísimo con la obra *Jubilate Deo* del compositor estadounidense Kirby Shaw.

**Info +**
www.federagaf.net

# Brady Allred Tolosan

**Duela bi urte Tolosako Abesbatza Lehiaketan arrasto handia utzi zuen Estatu Batuetako Salt Lake Choral Artists abesbatzak. Bada, koru horren zuzendaria bisitan etorriko zaigu berriro. Oraingoan Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak urtero antolatzen duen udazkeneko ikastaroa gidatzera etorriko da. Brady Allredek koru musika amerikarrari buruz ikastaro interesgarria eskainiko du azaroaren 10ean eta 11n.**

Duela bi urte, Brady Allredek eta Salt Lake Cityko bere ahots nahasiek Tolosako entzuleak limurtu eta liluratu egin zituzten. Entzuleek aho batez erabaki zuten euren saria ematea. Gainera, Utah-koek lau sari irabazi zituzten. Allred maisuak zuzendutako abesbatzak ahotsa eta erritmoa erabiliz ikuskizuna eskaini zuen taula gainean eta entzuleengana iristen jakin zuen.

Kontzertu berritzaileak egiteagatik eta XX. Mendeko musika kantatzeko moduagatik oso txalotua izan da Brady Allred koru munduan. Bere koruak nazioarteko jaialdi askotan parte hartzeko gonbidatu izan dituzte eta lehen sari asko irabazi dituzte.

Allred maisua musika irakaslea eta koru ikerketako zuzendaria izan zen Utah-ko Unibertsitatean. Horrez gain, Butlerreko Orkestra Sinfonikoko gidaria eta musika zuzendaria izan zen Duquesneko Unibertsitatean, eta baita Pittsburgh-eko Bach abesbatzaren zuzendari artistikoa eta orkestra zuzendaria ere.



**Info +**

www.federagaf.net
www.bradyallred.com

# Brady Allred en Tolosa

**El director del coro estadounidense Salt Lake Choral Artists que arrasó hace dos años en el Certamen Coral de Tolosa vuelve a visitarnos. Esta vez viene a Tolosa para dirigir el curso de otoño organizado anualmente por la Federación de Coros de Gipuzkoa. Brady Allred ofrecerá un interesante curso sobre música coral americana los días 10 y 11 de noviembre.**

Hace dos años, Brady Allred y sus voces mixtas de Salt Lake City sedujeron y fascinaron al público de Tolosa, que decidió casi por unanimidad otorgarles su premio, el premio del público. Además, los de Utah se llevaron cuatro primeros premios. Un coro que bajo órdenes del maestro Allred supo conectar con los oyentes con su espectáculo de voz y de ritmos en el escenario.

Brady Allred ha sido aclamado en el mundo coral por sus conciertos innovadores, por la interpretación de la música del siglo XX. Sus coros han sido invitados para participar en numerosos festivales internacionales y han ganado varios primeros premios.

Dr. Allred fue profesor de música y director de estudios corales en la Universidad de Utah. También fue director musical y director de la Orquesta Sinfónica de Butler, director de actividades corales en la Universidad de Duquesne y, director artístico y director de orquesta del coro Bach de Pittsburgh.

**Info +**

www.federagaf.net
www.bradyallred.com

# Musika sakratuak 30 urte Hondarribian

**Eskifaia abesbatzak antolatzen du eta musika sakratuaren jaialdi hau Euskadiko zaharrenetakoa da. Aurtengoa hogeita hamargarren jaialdia izan da eta lau kontzertu egin dira martxoaren 24tik apirilaren 1era bitartean, Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Mariaren parrokian.**

Hondarribiko Udalarekin eta Parrokiarekin elkarlanean antolatzen da Musika Sakratuaren Ziklo hori.

Honako talde hauek parte hartu dute zikloan: Beasaingo Loinatz abesbatza, Junkal Guerrerok gidatuta; Haizea Muñoz sopranoa eta Ana Belen Garcia organo-jotzailea; Asturiasko Leon de Oro abesbatza, iaz Tolosako Lehiaketan saritua; eta herriko Xatz Eskifaia eta Eskifaia Abesbatzak.

Koru musikan erreferente bilakatu da Zikloa. Urte hauetan guztietan ehun abesbatza inguruk abestu du, guztira 3.000 abeslari. Horrez gain, orkestra ugarik eta musika-jole askok parte hartu dute.

# 30 años de música sacra en Hondarribia

**Organizado por el Coro Eskifaia, se trata del festival de música sacra más veterano de Euskadi. Este año ha cumplido su treinta edición y ha acogido cuatro conciertos entre el 24 de marzo y el 1 de abril en la Parroquia de Nuestra Señora de la Asunción y del Manzano.**

El Ciclo de Música Sacra cuenta con la colaboración del Ayuntamiento de Hondarribia y la Parroquia.

En el ciclo participaron los siguientes grupos: el Coro Loinatz de Beasain, bajo la batuta de Junkal Guerrero; la soprano Haizea Muñoz y la organista Ana Belén García; la agrupación asturiana León de Oro, galardonada el pasado año en Tolosa; y las agrupaciones locales Xatz Eskifaia y Eskifaia Abesbatza.

El ciclo se ha convertido en un referente de la música coral. Durante todos estos años ha participado un centenar de coros, en torno a 3.500 cantantes, además de numerosas orquestas y músicos instrumentistas.



# Ganbara, gorena

**Oñatiko Ganbara abesbatza bere onenean dago. Bere musika, soinuaren kalitatea eta kantatzeko modua nabarmendu dira Berriobeitin (Nafarroa) Estatuko III. A Capella Abesbatza Lehiaketan. Aitor Biainen gidaritzapean, lehiaketako zazpi sarietatik bost eskuratu dituzte Oñatiko abeslariek.**

Martxoaren 17 eta 18ko asteburuan izan zen lehiaketa Berriobeitin, bertako Udalak eta Nafarroako Abesbatzen Federazioak antolatuta.

Honako sariak irabazi zituzten oñatiarrek: lehen saria polifonian, zuzendari onenarena (Aitor Biain), euskal obra baten interpretazio onenarena (Josu Elberdinen *Segalariak*), entzuleen saria eta A Capella Sari Nagusia, Lehiaketako puntu kopururik handiena lortzeagatik irabazi zutena.

Nuria Fernandezek zuzendutako Vokalars abesbatza madrildarrak lehen saria eskuratu zuen folklore sailean, bigarren saria polifonian eta jatorrizko tokiko obraren interpretazio onenaren saria, Asis Marquezen *Carnaval* lanarengatik. Valentziako Concordia Ahots Taldeak hirugarren saria eskuratu zuen polifonian eta folklorean; koru hori duela gutxi sortutakoa da eta Alejandro Curziok zuzentzen du.

**Aitor Biain,** Ganbarako zuzendaria:

## «Ikaragarri gozatu dugu»

**Zer moduz zaude sari horiek lortu ondoren?**

Oso pozik. Obra batzuk aukeratu eta horiek ahalik eta gehien landu, ondoren emaitza bikaina lortzeko. Bost hilabete eman ditugu lan gogorra egiten, baina asko ikasi dugu, eta batez ere, ikaragarri gozatu dugu. Eta hori oso garrantzitsua da koru eta zuzendari batentzat: egiten den lanarekin gozatzea. Beraz, oso gustura gaude egindako lanarekin, baina lanean jarraitzeko gogoa daukagu, oraindik bide luzea baitaukagu egiteko.

**Bi urte daramatzazu Ganbara zuzentzen eta emaitza bikainak lortzen ari zara.**

Bi urte besterik ez dira, baina esperientzia ederra izaten ari da, oso polita, eta Lehiaketa honek energia asko eman dit eta lanean segitzeko gogo handia ere bai.

**Zein izango da Ganbararen hurrengo erronka?**

Organoarekin batera kantatzeko programa bat prestatzen ari gara une honetan; Josu Elberdinen *Missa Ioannes Paulus II* meza estreinatuko dugu. Beste lehiaketa batera aurkezteko asmoa dugu, baina oraindik ez dugu erabaki ze lehiaketan parte hartuko dugun.

**Info +**

www.ganbara.org



# Ganbara, supremo

**El coro Ganbara abesbatza de Oñati está en uno de sus mejores momentos. Su programa musical, la calidad de su sonido e interpretación han quedado patentes en el III. Certamen Estatal de Coros A Capella celebrado en Berrioplano (Navarra). Bajo la batuta de Aitor Biain los de Oñati han obtenido cinco de los siete primeros premios del certamen.**

El Certamen se celebró el fin de semana del 17 al 18 de marzo en Berrioplano, organizado conjuntamente por el Ayuntamiento de dicha localidad y la Federación de Coros de Navarra.

Los oñatiarras se llevaron los siguientes seis galardones: primer premio en polifonía, segundo premio en folklore, mejor director (Aitor Biain), mejor interpretación de obra vasca (*Segalariak* de Josu Elberdin), premio del público y el Gran Premio A Capella por conseguir la mayor puntuación del Certamen.

La formación madrileña Vokalars dirigida por Nuria Fernández se llevó el primer premio en la modalidad de folklore, segundo premio en polifonía y el premio a la mejor interpretación a la obra de lugar de origen por *Carnaval* de Asís Márquez. El Grupo vocal Concordia de Valencia recientemente formado y dirigido por Alejandro Curzio se llevó el tercer premio en polifonía y folklore.

**Aitor Biain,** director de Ganbara:

## «Hemos disfrutado muchísimo»

**¿Cómo se siente con los premios obtenidos?**

Muy satisfecho. Seleccionar unas obras y trabajar en ellas al máximo, para luego obtener un resultado excelente. Han sido casi cinco meses de duro trabajo, pero hemos aprendido mucho, y sobre todo, hemos disfrutado muchísimo. Y eso es muy importante para un coro y para un director: disfrutar con el trabajo que se hace. Por tanto, nos sentimos muy satisfechos con el trabajo realizado, pero tenemos ganas de seguir trabajando, ya que nos queda un largo camino por recorrer.

**Lleva dos años dirigiendo Ganbara y está consiguiendo unos resultados excelentes.**

Son sólo dos años, pero está siendo una experiencia gratificante, muy bonita, y este Certamen me ha aportado mucha energía y muchas ganas de seguir trabajando.

**¿Cuál va a ser el próximo reto de Ganbara?**

En estos momentos estamos montando un programa coral para órgano; estrenaremos la misa *Missa Ioannes Paulus II* de Josu Elberdin. Tenemos el propósito de presentarnos a otro certamen, pero aún está sin concretar.

**Info +**

www.ganbara.org

# Mirrix katuaren arrastoan

**Katakumez bete zen Oñatiko Santa Ana antzokia pasa den otsailaren 12an. Josu Elberdinen *Mirrix katua* ipuin musikatua abestu eta antzeztu zuen Ganbara Txikitxoak abesbatzak. Musikala taularatu du hirugarren urtez jarraian.**

Bi atal nagusi izan zituen emanaldiak. Lehenengo atalean, zabortegi batean bizi diren katu koadrila baten egunerokoa kontatu zuten. Jatorri desberdineko katuek norbere herriko kantuak erakutsi zizkieten besteei. Ikuskizunaren bigarren atalean, berriz, Mirrix katuaren istorioa taularatu zuten. Kale kantoi batean bizi den Mirrix katu harro eta alprojaren istorioa kontatzen du.

Ainhoa Urzelai Ganbara Txikitxoko partaideak egin zuen Mirrix katuaren papera, eta Mikel Freirek eta Gorka Aranburuk, berriz, zakur eta barraskiloaren paperak.



## Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu bat

Orain bi urte hasitako *Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu bat* ekimenaren baitan emanaldia eskaini zuen martxoaren 30ean Ganbara Gazte abesbatzak, Aitor Biainen gidaritzapean. Aitor Olea eta Eli Mendiaraz organo-jotzaileak lagun izan zituzten Arantzazuko basilikan eskainitako kontzertuan. Ekimen horren helburu nagusietako bat musikagile garaikideek konposatutako pieza erlijioso bereziak aurkeztea da.

## Ganbara Txiki Valentzian

Ganbara Txiki taldea Valentzian izan da apirilaren 10etik 13ra bitartean. Iaz Ejeako lehiaketan ezagututako Coral Santísima Trinidad gazte abesbatzarekin trukea egin dute oñatiarrek. Kontzertua eskaintzeaz gain, Valentzia ezagutzeko aukera izan dute abeslariek.

**Info +**
www.federagaf.net



# Tras la pista del gato Mirrix

**El Teatro Santa Ana de Oñati se llenó de gatitos el pasado 12 de febrero, en la actuación del cuento musical *Mirrix katua* de Josu Elberdin. Los coralistas de Ganbara Txikitxoak se metieron en la piel de un grupo de gatos y les pusieron voz. Es la tercera vez que los de Oñati representan un musical.**

El concierto tuvo dos partes. En la primera parte se narró la vida de una cuadrilla de gatos que viven en un vertedero. Los gatos procedentes de diferentes lugares enseñaban sus canciones populares unos a otros. En la segunda parte del espectáculo se representó la historia del gato Mirrix, un gato orgulloso y travieso que vive en la esquina de una calle.

La coralista Ainhoa Urzelai de Ganbara Txikitxoak interpretó al gato Mirrix, y Mikel Freire y Gorka Aranburu interpretaron al perro y al caracol.

## Otra manera de mirar la música religiosa

Ganbara Gazte abesbatza volvió a ofrecer un concierto dentro del proyecto iniciado hace dos años, *Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu bat*. En el concierto celebrado en la Basílica de Arantzazu el 30 de marzo, el director Aitor Biain contó con el acompañamiento de Aitor Olea y Eli Mendiaraz al órgano. Uno de los objetivos de esa iniciativa es presentar piezas religiosas originales compuestas por compositores contemporáneos.

## Ganbara Txiki en Valencia

El grupo Ganbara Txiki estuvo en Valencia entre el 10 y 13 de abril. Realizaron un intercambio con la Coral juvenil Santísima Trinidad que conocieron el año pasado en el certamen de Ejea. Además de ofrecer un concierto, los cantores pudieron visitar varios lugares de Valencia.

**Info +**
www.federagaf.net

# Hodei Truk, txikien operan

**David Azurzak zuzendutako abesbatza hasi da bere hogeita bosgarren urteurrena ospatzen. Torreviejako Habanera Lehiaketatik itzuli berri da eta orain Altzoko Haundia izeneko txikien opera proiektuan buru belarri dabil. Kaleratu dute operako abestiz osatutako soinu grabaketa.**

Koru musika eta txotxongiloak uztartzen dituen opera hori egiteko proposamena Tolosako Ekinbide Etxearena izan da. XIX. mendean Altzo herrian (Gipuzkoa) izandako Migel Joakin Elizegi erraldoiaren istorioa aukeratu zuen Azurzak operako gai gisa. Koldo Izagirre idazlea arduratu da Altzoko Erraldoiari buruzko datuak bildu eta liburuxka idazten; kantari bakarlarien, aktoreen, instrumentu taldearen eta haur abesbatzaren musika sortzeaz arduratu da David Azurza.

Opera euskaraz egin dute, baina gaztelaniara ere moldatuko da. Hala ere, operaren estreinaldiaren eguna oraindik erabaki gabe dago. Lehendabizi CD batean jaso dituzte operako abestiak. Istorioaren haria jarraitzeko, Andoni Aleman narratzailearen ahotsa entzuten da abestien artean. Musikari zein aurpegi ezagun batzuk parte hartu dute grabaketan, hala nola, Kike Amonarriz, Anjel Alkain, Maite Arruabarrena, Luis San Sebastian eta Aitor Furundarenak.

Maiatzean atera da CDa eta 14 euroren truke erosi ahal izango da. Altzon nahiz Tolosan aurkeztuko du abesbatzak bere lana. CDa eskuratzeko bidali mezu bat honako helbidera: hodeitruk@gmail.com

Operaren zenbait zati entzungai izango dira laster honako blogean: altzokohaundiaopera.blogspot.com

## Habanera lehiaketa

Apirilaren azken asteburuan Torreviejako 18. Habaneren Gazte Lehiaketan parte hartu berri du Tolosako koruak. Mundu osotik joandako zortzi talderekin lehian izan dira tolosarrak, baina ez dute saririk lortu. Txalo zaparradak jaso zituzten *Ken, ken, ken akerra* eta David Azurzak lehiaketarako egindako *Habanera de las estrellas* abestiak abestu zituztenean. Lehen saria Filipinetako taldearentzat izan zen, bigarrena letoniarrentzat eta hirugarrena Alcorcongo abesbatzarentzat.

**Info +**
http://hodeitruk.blogspot.com.es




# Hodei Truk, en la ópera de los peques

**El coro dirigido por David Azurza ha comenzado ya a celebrar su veinticinco aniversario. Acaba de regresar del Certamen de Habaneras de Torrevieja y ahora se encuentra inmerso en el proyecto de la ópera de los pequeños. Este mes editarán una grabación sonora compuesta por canciones de la ópera.**

La propuesta de aunar la música coral y los títeres en esta ópera surge del Centro de Iniciativas de Tolosa (CIT). David Azurza eligió como argumento la historia acontecida en el siglo XIX en Altzo (Gipuzkoa), del gigante Migel Joakin Elizegi. El escritor Koldo Izagirre se ha encargado de recoger los datos sobre el gigante de Altzo y escribir el libreto; David Azurza ha trabajado en la parte musical de solistas, actores, grupo instrumental y coro infantil.

La ópera se ha elaborado en euskara, pero se realizará su adaptación al castellano. De todas formas, el estreno de la ópera está todavía sin concretar. Primero han incluido en un CD las melodías de la ópera. Con el objetivo de mantener el hilo del relato, entre canción y canción se puede escuchar la voz del narrador Andoni Alemán. Han participado en la grabación algunos músicos y caras conocidas como Kike Amonarriz, Anjel Alkain, Maite Arruabarrena, Luis San Sebastián y Aitor Furundarena.

El CD ha salido a la calle en mayo y se podrá adquirir por 14 euros. El coro presentará su trabajo en Altzo y en Tolosa. Para comprar el CD hay que enviar un correo electrónico a la siguiente dirección: hodeitruk@gmail.com

Algunos fragmentos de la ópera se podrán escuchar próximamente en el siguiente blog: altzokohaundiaopera.blogspot.com

## Certamen de habaneras

A finales de abril el coro de Tolosa ha participado en el 18. Certamen Juvenil de Habaneras de Torrevieja. Las de Tolosa han competido con ocho coros procedentes de todo el mundo, pero no han obtenido ningún premio. La obra *Ken, ken akerra* y la *Habanera de las estrellas* compuesta por el propio David Azurza para el Certamen fueron muy ovacionadas. El primer premio fue para el grupo de Filipinas, el segundo para los de Letonia y el tercero para el coro de Alcorcón.

**Info +**
http://hodeitruk.blogspot.com.es

# Otxote festibala Kanbon

**11. Otxote Festibala egin da Kanbon pasa den maiatzaren 4an eta 5ean, bertako Arraga abesbatzak antolatuta. Hegoaldeko nahiz Iparraldeko zortzi otxotek parte hartu dute bi urtez behin egiten den jaialdi horretan. Kanboko Herriko Etxearen eta Euskal Kultur Erakundearen laguntza izan du festibalak, eta aurtengo berrikuntza gaztez osatutako otxoteen parte-hartzea izan da, horietako bat gainera, neskez osatutakoa.**

Kanboko Zortzi Iturri gazte otxoteak eman zion hasiera jaialdiari ostiralean. Bilboko Argia otxoteak jarraitu zion eta Baionako Aizkoa otxotea eta Donostiako Easo Korua etorri ziren azkenik.

Zortzi Iturri gazte otxotea, 2010. urtean sortu zen Kanboko Festibalaren 10. urteurrena zela eta egin ziren ospakizunen inguruan. "Mikel Erramouspek zuzentzen duen gazte otxote horrek oso harrera ona izan zuen 2010. eko jaialdian, eta aurten Festibalari hasiera emateko aukera izan du", Marie Jeanne Barbotin Arraga koruko idazkariak esan digunez. "Aizkoa ere, 2010. eko edizioan etorri zen Kanbora lehenengoko aldiz. Easo Korua eta Bilbo Argia, bestalde, aski ezagunak eta maiteak dira Kanboko Festibalean aspaldi", gaineratu du Barbotinek.

Larunbatean, berriz, Mindegi gazte otxotea izan zen kantatzen lehena. Haren atzetik Donostiako Eguzkilore, Bordeleko Etxekoak (Jordi Freixa irundarrak zuzentzen duena), eta Donostiako Ozenki etorri ziren. Mindegi eta Eguzkilore berriak dira Kanboko jaialdian. Ozenki eta Etxekoak, berriz, izan dira lehen ere Iparraldeko festibalean. "Mindegi, Zortzi iturri bezala, gazte otxotea da; Thierry Biscarryk sortu du aurtengo festibalerako zortzi neska gaztez osatutako taldea", adierazi dute Arraga koruko antolatzaileek.

Otxoteak gizonezkoz osatutako taldeak izan dira orain arte, eta beraz, zaila izaten da entzuleek emakumeak onartzea. "Azkenengo urteetan gazte otxoteekin egin da emakumeak sartzeko saiakera (Zazpi Iturri otxotean ere 7 neska eta mutil bat aritzen dira) eta publikoak oso ondo hartu du, baina salbuespena da", adierazi du Marie Jeanne Barbotinek.

### Kanbo, otxoteak entzuteko aukera

Urriak dira egun otxoteak entzuteko aukerak ere. Kanboko Arraga abesbatzak antolatzen duen jaialdia da aukera bakan horietako bat. Bada beste jaialdi bat, Joseba Gotzon kantari eta otxoteetan adituak Portugaleten antolatzen duena. Bertan, ordea, atzerritik etorritako taldeek parte hartzen dute. Hortaz, Kanbokoa da bertakoekin egina den jaialdi bakarra.

Arraga abesbatzak otxote jaialdia antolatzen duen bakoitzean bezala, Kanboko San Laurendi eliza gainezka egon da aurten ere. Jendea otxoteak entzuteko gogoz dagoen seinale. Euskal Herriko puntu guztietatik etortzen dira entzuleak. Hegoaldetik asko eta asko. Eta badira atzerritik etortzen diren jarraitzaileak ere. "Bada talde bat edizio guztietara etorri dena, nondik eta Estrasburgotik", aipatu digu Arragako zuzendaritzak.

Bi urterik behin antolatzen du Arraga abesbatzak otxote festibala. Lehen festibala 1996. urtean egin zuten, Euskal Herriak berezkoa duen musika talde hau berpizteko asmotan. Izan ere, ia desagertua zegoen garai hartan.

2000. urterarte urtero antolatu zuten jaialdia Kanbon. Harrez gero, ordea, bi urterik behin egiten dute, otxote urritasuna dela eta. Izan ere, gutxi dira egun mantentzen diren benetako otxoteak. Alegia: zortzi gizonez osotutako taldeak (guztiak gizonezkoen ahotsa dutenak, alegia: bi lehen tenore, bi bigarren tenore, bi baritono eta bi baxu).

Joseba Gotzon otxote ikerlariak adierazi digunez, "zaila izaten da horren talde txikietan otxoteak behar dituen ahots guztiak izatea eta aldi berean ahots horiek kalitatezkoak izatea. Agian horregatik falta dira zortzikoteak". "Egungo koruak, polifonia maila bermatzeko, ahots zuriez baliatzen dira gehienbat. Beraz, benetako otxoteen faltan, koru zabalagoek propio sortzen dituzte zortzikoteak, jaialdietara joateko normalean. Gehienetan gainera, 10-12 gizon bidaltzen dituzte eta txandakatu egiten dira abestiak kantatzeko" azaldu du Gotzonek.

Gauzak horrela, otxoteen eta festibalaren bizia bermatzeko asmoz, Kanboko festibalaren etorkizunera begira Arraga abesbatzak planteatzen duen erronka nagusia otxotearen fenomenoa gazteei heleraztea da. "Pentsatu dugu hurrengo jaialdietan haur eta gazteei zuzendutako ekitaldiren bat antolatzea igande arratsaldetan", adierazi du Barbotinek.

**Info +**
www.otxote.com
www.arraga.fr




# Festival d'Otxotes à Cambo les Bains

**Le 11ème Festival de l'Otxote a eu lieu à Cambo les Bains le 4-5 mai, organisé par le Choeur Arraga, originaire de la même ville. 8 otxotes venus du Nord et Sud du Pays Basque ont participé à ce Festival qui s'organise tous les deux ans, grâce à la collaboration de la Mairie de Cambo et de l'Institut Culturel Basque, entre autres. Il y a eu du nouveau dans cette édition 2012. Ainsi, la participation de deux otxotes de jeunes; l'un d'eux formé exceptionnellement qu'avec des filles.**

L'otxote de jeunes Zortzi Iturri (huit sources), originaire de Cambo, a inauguré le Festival vendredi 4. Puis sont venus les otxotes Bilboko Argia, Aizkoa de Bayonne et Easo Korua de Donostia.

L'otxote Zortzi Iturri fut crée en 2010 à l'occasion de la célébration du 10ème anniversaire du Festival. "Cet otxote dirigé par Mikel Erramouspe, eut un grand succès l'année dernière", explique Marie Jeanne Barbotin, secrétaire du Choeur Arraga. "L'otxote Aizkoa est aussi venu au Festival l'année dernière pour la première fois. Easo Korua et Bilboko Argia, par contre, sont connus et bien aimés à Cambo depuis longtemps", assure Mme Barbotin.

Samedi 5, c'est le tour du deuxième otxote de jeunes, nommé Mindegi, qui a ouvert la soirée; suivi par l'otxote Eguzkilore de Donostia, Etxekoak de Bordeaux (dirigé par Jordi Freixa, originaire d'Irun) et Ozenki de Donostia. C'est la première fois que les otxotes Mindegi et Eguzkilore viennent chanter à Cambo. Ozenki et Etxekoak, par contre, ont déjà chanté auparavant. "Mindegi, comme Zortzi Iturri, est un otxote de jeunes. C'est Thierry Biscarry qui l'a crée, avec 8 jeunes filles, pour le Festival 2012", nous expliquent les organisateurs du Choeur Arraga.

Les otxotes ont toujours été des choeurs d'hommes. C'est donc difficile pour le public d'accepter la participation de femmes. "Dernièrement, on a fait l'essai d'introduire des femmes dans les otxotes de jeunes (à l'otxote Zortzi Iturri il y a aussi un garçon et 7 jeunes filles) et le public l'a très bien accepté, mais c'est quelque chose d'exceptionnel", explique Marie Jeanne Barbotin.

### Cambo, lieu de rencontre pour les otxotes.

Actuellement il y a peu d'occasions pour écouter des otxotes. Le Festival organisé par le Choeur Arraga de Cambo c'est une des seules possibilités. C'est vrai qu'il existe un autre Festival, organisé par le chanteur et connaisseur de l'otxote Joseba Gotzon à Portugalete. Mais à ce festival participent aussi des choeurs venus en dehors du Pays Basque. Alors, celui de Cambo, c'est le seul festival vraiment local.

Le festival, dès sa naissance, a connu un grand succès qui ne s'est jamais démenti. Le public vient de tous les coins du Pays Basque. La plupart du sud. Puis de l'étranger. "Il y a un groupe qui est venu tous les ans, de Strasbourg", raconte Mme Barbotin.

Le Choeur Arraga organise le Festival depuis 1996, avec l'intention de donner une nouvelle vie à cette formation chorale caractéristique du Pays Basque qui avait quasiment disparue à cette époque là.

Jusqu'à l'année 2000 le festival a été organisé tous les ans. Afin d'assurer un recrutement de groupes de qualité, le festival est désormais passé tous les 2 ans. D'ailleurs, il reste peu de vrais otxotes de nos jours. C'est à dire: des choeurs de 8 huit hommes à huit voix (deux premiers ténors, deux deuxièmes ténors, deux barytons et deux bas).

Selon le connaisseur de l'otxote Joseba Gotzon, "c'est difficile de réunir, dans un groupe si petit, la variété de voix dont on a besoin pour former un otxote". Surtout si l'on veut assurer de la qualité. De nos jours, les Choeurs utilisent des voix blanches pour garantir la polyphonie. "Alors, due la manque de vrais otxotes, les Choeurs créent des groupes exprès pour participer aux Festivals", ajoute Gotzon. "En plus, normalement ils envoient des groupes de 10-12 hommes qui se relayent pour chanter".

Ainsi les choses, vis-à-vis de l'avenir, l'objectif du Choeur Arraga est d'approcher l'otxote aux jeunes, afin de garantir la vie de ce choeur du Pays Basque et du Festival même. "On a pensé à organiser des activités dirigées aux jeunes les dimanches après-midis", nous explique Barbotin.

**Info +**
www.otxote.com
www.arraga.fr

# Indarrak batzen

**Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea harremana sendotzen ari da Donostiako Orfeoiarekin. Bi erakundeak elkartu eta euren indarrak batu dituzte koru musikaren arlo guztiak bultzatzeko asmoarekin eta elkarrekin koru proiektuak aurrera eramateko helburuarekin.**

Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea nahiz Donostiako Orfeoia urratsak ematen ari dira euren arteko abesbatza harremana sendotzeko bidean. Harreman hori bideratzeko lantalde bat sortu da; bi hilabetez behin elkartuko da lantalde hori. Bi erakundeek gizartean duten presentzia indartu nahi dute, eta hori lortzeko elkarrekin ze proiektu egin aztertuko du lantalde horrek.

Bi erakundeen arteko harremanaren garai berri honek ekarri duen lehen ondorioa, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen egoitzaren tokialdaketa izan da; Gipuzkoako hiriburuan izango du egoitza EAEk hemendik aurrera.

## Elkarlanerako hitzarmena

Bi erakundeen arteko harremanak estutzeko asmoz eta elkarlan hori sendotzeko helburuarekin, elkarlanerako hitzarmen bat sinatuko dute bi erakundeek laster; hitzarmen hori izango da alde biko harremanaren oinarria. Jose Antonio Echarri Donostiako Orfeoiaren presidenteak eta Amaia Garmendia Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko lehendakariak sinatuko dute hitzarmena.

Hitzarmen horren helburua da egin beharreko lanaren ildo nagusiak txosten batean jasotzea. Ildo horietan oinarrituta gidatuko dira bi instituzioen interesak, euskal koru kulturaren eta koru proiektu bateratuen alde indarrak biltzeko helburuarekin.

Artea eta kultura sustatzen dituzten beste erakundeekin harremana izateko nahia du Orfeoiak eta asmo horrekin bat egiten du Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak ere.

Koru musika zabaldu eta sustatu nahi da, batez ere gazteagoak diren belaunaldietan, eta abesbatzen ekintzak bultzatu nahi dira.

Gure mugetatik kanpo ezaguna da Orfeoia eta ospe handia du nazioartean. Bestalde, federatutako 300dik gora koru daude Abesbatzen Elkartean; guztira 10.000 abeslari dira, ahalmen handiaren seinale. Gainera, 2016an Donostia Europako Kultur Hiriburu izateko egitarauko koru ekintzen proiektua Elkarteak berak prestatu du.

## Egoitza aldaketa

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak utzitako lokal batean izan du egoitza azken urteetan Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak. Tolosako Idiakez jauregitik antolatu eta gidatu ditu bere jarduerak eta koru proiektuak azken hiru urteotan.

Donostiako Orfeoiaren jarrera on eta eskuzabaltasunari esker, egoitza berria du EAEk pasa den apirilaz geroztik Donostiako Parte Zaharrean, Donostiako Orfeoiaren eraikinaren ondoan. Etapa berri bati hasiera eman zaio, eta hahi duenarentzako honako helbide honetan egongo da Elkartea:

**San Juan kalea, 8, behea**
**20003 Donostia**
**San Sebastián**
**Telefonoa: 943 433 367**
**Ordutegia: 9:00 - 14:00**
**info@koralakeae.com**
**www.koralakeae.com eta**

Lerro hauen bitartez EAEk eskerrak eman nahi dizkio Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteari, hiru urte hauetan egindako harrerarengatik.



# Aunando esfuerzos

**La Confederación de Coros del País Vasco estrecha lazos con el Orfeón Donostiarra. Las dos entidades han unido sus fuerzas con el objetivo de impulsar la música coral en todas sus vertientes y llevar a cabo proyectos corales conjuntos.**

Tanto la Confederación de Coros del País Vasco como el Orfeón Donostiarra están dando pasos en la consolidación de su relación coral. Para dar cauce a esa relación, se ha formado un grupo de trabajo que se reunirá una vez cada dos meses, en el seno del cual se tratará de abordar proyectos en común, que refuercen la presencia de ambas instituciones en la sociedad.

Una de las consecuencias más inmediatas de esta nueva etapa de relación entre las dos instituciones ha traído consigo el traslado de la sede de la Confederación de Coros del País Vasco (EAE) a la capital gipuzkoana.

## Convenio de colaboración

Con el objetivo de estrechar los lazos entre ambas instituciones y afianzar más esa colaboración, próximamente las dos entidades firmarán un convenio de colaboración, en el que se basarán a partir de ahora las relaciones bilaterales. La firma se llevará a cabo entre José Antonio Echarri, presidente del Orfeón Donostiarra, y Amaia Garmendia, presidenta de la Confederación de Coros del País Vasco.

Mediante ese acuerdo se pretende plasmar en un documento las líneas principales del trabajo a desarrollar, que regirán el interés de las dos instituciones para aunar sus esfuerzos en favor de la cultura coral vasca y promover proyectos corales conjuntos.

Con este convenio, la Confederación se suma al propósito del Orfeón de vincularse con otras instituciones que promueven el arte y la cultura.

Se trata de ampliar y fomentar la práctica de la música coral, especialmente entre las generaciones más jóvenes, e impulsar el desarrollo de actividades corales.

El Orfeón es reconocido más allá de nuestras fronteras y cuenta con un enorme prestigio internacional. Por su parte, la Confederación reúne a más de 300 coros federados que engloban cerca de 10.000 coralistas, un potencial nada desdeñable. Además, la Confederación ha desarrollado el proyecto de actividades corales que se desarrollarán dentro del programa de la capitalidad cultural europea Donostia 2016.

## Cambio de sede

La Confederación de Coros del País Vasco - Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea (EAE) ha tenido como sede en estos últimos años un local cedido por la Federación de Coros de Gipuzkoa. Ha sido desde el Palacio Idiakez de Tolosa desde donde EAE ha organizado y dirigido todas sus actividades y proyectos corales en los últimos tres años.

Gracias a la buena disposición y a la generosidad del Orfeón Donostiarra, EAE dispone desde el pasado mes de abril de una sede sita en la Parte Vieja donostiarra, en el edificio anexo a la sede del Orfeón Donostiarra, y comienza así una nueva etapa en la que estará a disposición de todas las personas interesadas, en la siguiente dirección:

**Calle San Juan nº 8, bajo**
**20003 Donostia**
**San Sebastián**
**Teléfono: 943 43 33 67**
**Horario: De 9:00 a 14:00h**
**info@koralakeae.com y**
**www.koralakeae.com**

Desde estas líneas, EAE quiere agradecer a la Federación de Coros de Gipuzkoa su acogida durante estos tres años.

### ¡ ATENCIÓN !

Dentro de la nueva etapa de colaboración abierta entre el Orfeón Donostiarra y la Confederación de Coros del País Vasco, el Orfeón oferta 80 plazas para coralistas pertenecientes a coros federados a EAE para participar en un concierto cantando conjuntamente la Novena Sinfonía de Beethoven.

En fechas próximas os ofreceremos información más detallada sobre este acontecimiento y las condiciones de participación.

### ADI !!!

Donostiako Orfeoia eta Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak abiarazi duten elkarlaneko ibilbide berria hasi da dagoeneko lehenengo fruituak ematen: EAEn federatutako abesbatzatako 80 abeslarik Donostiako Orfeoiarekin batera Beethovenen 9. Sinfonia kantatzeko aukera izango dute.

Aurrerago honen berri eta parte hartu ahal izateko baldintzei buruzko zehaztasun gehiago emango dizuegu. Adi egon!

### ATTENTION !!!

La période de collaboration ouverte parmi l'Orféon Donostiarra et la Confédération des Chorales du Pays Basque a commencée à donner des fruits : 80 des chanteurs fédérés à EAE auront l'opportunité de chanter la Neuvième Symphonie de Beethoven avec l'Orféon Donostiarra.

Plus tard nous vous offrirons plus d'informations sur cet événement et les conditions pour y participer.

# Donostia Europa hiriburua 2016 izendatu dute

Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatu dute ofizialki. Pasa den maiatzaren 10ean Europar Batasuneko Ministro Kontseilua Bruselan elkartu zen eta Donostiaren izendapena berretsi zuen. Erakundeek zein donostiarrek pozik, hunkituta eta arduraz hartu dute izendapen ofiziala.

Izendapen ofizialak prozesu eraldatzailearen abiapuntua ekarriko du, 2016ra bitarte abian jarriko den bidea alegia; ibilbide horretan kultur eragileek protagonismo handia izango dute.

Pasa den maiatzaren 11n Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak izendapen ofizialaren ekitaldian parte hartu zuen. Amaia Garmendia presidenteak eta Paula Garcia idazkari nagusiak parte hartu zuten ekitaldian Elkartearen izenean.

# Donostia ya es capital europea 2016

Donostia-San Sebastián ya es oficialmente Capital Europea de la Cultura 2016. El pasado 10 de mayo el Consejo de Ministros de la Unión Europea reunido en Bruselas ratificó su nombramiento. Una designación oficial que tanto las instituciones como los ciudadanos de Donostia-San Sebastián recibieron con orgullo, emoción y responsabilidad.

La designación oficial supone un nuevo punto de partida de un proceso transformador que se pone en marcha de camino a 2016, donde los agentes culturales tendrán gran protagonismo.

El pasado 11 de mayo, la Confederación de Coros de Euskal Herria participó en el acto de celebración de la designación oficial. Amaia Garmendia, presidenta, y Paula García, secretaria general, acudieron a la cita representando a la confederación.

# Zuzendaritza akademia



**Abesbatzen Zuzendaritza Akademiak datorren uztailaren 15etik 21era bitartean irekiko du atea Bilbon, Deustuko Ikastetxe Nagusian. Abesbatzak zuzentzeko interesa duten gazteak trebatzeko helburua du Akademiak, eta bide batez, esperientzia gehiagoko zuzendariei birziklatzeko eta euren ezagutza handitzeko aukera eman nahi die. Aurtengo berrikuntza 16 eta 20 urte bitarteko gazteei zuzendutako ikastaroa da, koru zuzendaritzan lehen urratsak emateari begira antolatutakoa.**

Hauexek izango dira aurten irakasleak: Maite Oca (1. maila), Esteban Urzelai (2. maila) eta Werner Ptaff musikari alemaniarra (3. maila). Azken hori Karlsruheko "Studio Vocale" ahots nahasietako abesbatzaren zuzendaria da; lehen sari ugari irabazi ditu koru horrekin nazioarteko abesbatza lehiaketetan eta mundu osoko jaialdietan parte hartzeko gonbidatu dute. Zuzendaritza katedraduna izan zen Francforteko Musika Akademian eta Weimarreko Franz Liszt Musika Akademian. Orkestra asko zuzendu ditu eta 2004az geroztik Perun sortu berria den Limako Abesbatzen Nazioarteko Jaialdiko zuzendari artistikoa da.

David Azurza eta Ana Otxoa arduratuko dira ahots teknikaz. Kultur kudeaketari buruzko ikasgaia, berriz, Rennier Piñerok emango du.

Aurtengo berrikuntza 16 eta 20 urte bitarteko gazteei zuzendutako ikastaro berria da; koru zuzendaritzan lehen urratsak nola eman erakutsiko zaie gazteei eta Enrique Azurza izango da irakaslea. Ekimen aitzindaria da. Zuzendaritza ikastaroetan buru-belarri sartu aurretik, gure gazteek zuzendaritzarekin lehen hartu-emana izatea da helburua.

Ekainaren 29a baino lehenago izena eman beharko da.

**Info +**
www.koralakeae.com



# Academia de Dirección

**La Academia de Dirección Coral abrirá sus puertas del 15 al 21 de julio en el Colegio Mayor Deusto, en Bilbao, con el objetivo de formar a jóvenes músicos interesados por la dirección coral y, reciclar y aumentar los conocimientos de los directores más experimentados. Este año tenemos como novedad la inauguración de un Curso de Introducción a la Dirección Coral para jóvenes de entre 16 y 20 años.**

Este año los profesores serán los siguientes: Maite Oca (1º nivel), Esteban Urzelai (2º nivel) y el músico alemán Werner Ptaff (3º nivel). Este último es director del coro mixto "Studio Vocale" Karlsruhe, con el que ha ganado numerosos primeros premios en concursos internacionales y ha recibido invitaciones para muchos festivales en todo el mundo. Fue catedrático de dirección en la Academia de Música de Francfort y en la Academia de Música Franz Liszt, en Weimar. Ha dirigido numerosas orquestas y desde 2004 es director artístico del recién fundado Festival Internacional de Coros de Lima en Perú.

La técnica vocal correrá a cargo de David Azurza y Ana Otxoa. La asignatura sobre gestión cultural la impartirá Rennier Piñero.

Este año tenemos como novedad la inauguración de un Curso de Introducción a la Dirección Coral para jóvenes de entre 16 y 20 años, que lo impartirá Enrique Azurza. Es una iniciativa pionera. Se trata de que nuestros jóvenes tengan un primer contacto con la dirección, un paso previo a los cursos de dirección.

La fecha de inscripción finaliza el 29 de junio.

**Info +**
www.koralakeae.com

# Eva Ugalde, epaimahaikide europarra

**Eva Ugalde konpositore donostiarra Koru Konposizioetarako Europar Sarirako epaimahaikide izateko hautatu du Europa Cantat-ek. Izen bereko jaialdiaren barruan urtero egiten da konposizio lehiaketa**

Sei pertsonez osatuta dago epaimahaia: Jonathan Rathbone (Ingalaterra), Epaimahaiko presidentea; Nicola Campogrande (Italia); Alessandro Cadario (Italia); Maria van Nieukerken (Holanda); Marjeta Naglic (Eslovenia); eta Eva Ugalde (Euskadi).

"Ikaragarritako poza eman zidan aukeratu nindutela esan zidatenean. Horrenbeste herrialdetako konpositoreen lana epaitzeko irizpideak badituzula aitortzen dizute hautatu izanarekin, eta hori ohore bat da". Ugaldek gainera adierazi duenez, mugarik ez diete jarri obrak epaitzeko. "Pozten nau hori horrela izateak, gauza interesgarriak atera baitaitezke. Era guztietako obrak egon dira, estilo desberdinekoak. Obra horiek sakon aztertzea lan handia da, argudiatu egin behar baituzu zergatik aukeratzen duzun obra bat eta ez beste bat".

Hiru kategoriatan aurkeztutako hogeita hemezortzi obraren artean aukeratu behar izan dute epaimahaikideek: a capella kantatzen duten koruentzako obrak, gehienez lau musika tresnaren akonpainamenduarekin kantatzeko koruentzako obrak eta jazz obrak, a capella edota gehienez hiru musika tresnaren laguntzarekin kantatzen duten koruentzat.

Turinen egingo den Europa Cantateko jaialdiaren barruan aurkeztuko dira saritutako obrak.

Ez da Ugalderen lanak nazioartean goraipatzen dituzten lehen aldia. Iaz Nazioarteko Musika atarian Ugaldek ahots zurientzako egindako Miserere "2011ko abuztuko bihotzeko gogokoena" bezala aintzat hartu zuten.

**Info +**
www.europeanchoralassociation.org



# Eva Ugalde, jurado europeo

**La compositora donostiarra Eva Ugalde ha sido seleccionada para ser miembro del jurado del Premio Europeo para Composiciones Corales, un concurso anual organizado por Europa Cantat dentro del Festival del mismo nombre.**

El jurado lo componen seis personas: Jonathan Rathbone (Inglaterra), presidente del Jurado; Nicola Campogrande (Italia); Alessandro Cadario (Italia); Maria van Nieukerken (Holanda); Marjeta Naglic (Eslovenia); y Eva Ugalde (Euskadi).

"Me dio un subidón cuando me dijeron que había sido seleccionada. Realmente es un honor que te consideren una profesional con suficientes criterios como para juzgar el trabajo de compositores de tantos países". Ugalde añade que no les han puesto límites para juzgar las obras. "Y me alegro mucho de que sea así, porque pueden salir cosas interesantes. Ha habido obras de todo tipo, de diferentes estilos. Analizarlas a fondo es mucho trabajo, porque tienes que argumentar porqué eliges una obra y no otra".

Los miembros del jurado han tenido que seleccionar entre treinta y ocho obras presentadas en tres categorías: obras para coros a capella, obras para coros con acompañamiento de hasta cuatro instrumentos y obras de jazz para coros a capella o acompañadas de hasta tres instrumentos.

Está previsto presentar las obras premiadas en el marco del festival de Europa Cantat que se va a celebrar en Turín en agosto.

No es la primera vez que Ugalde es reconocida internacionalmente. El año pasado el portal de Música Internacional seleccionó la obra *Miserere* para voces blancas como la obra "favorita del corazón de agosto 2011".

**Info +**
www.europeanchoralassociation.org

# CIT eta Jagoba Astiazaran, Orfeoia eta EHUren sarituak

**Donostiako Orfeoiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak urtero elkarrekin ematen duten saria jaso zuten Tolosako Ekinbide Etxeak eta Jagoba Astiazaran Zestoako musikariak pasa den otsailean. Musika ikerkuntzan eta musika jarduerraren sustapenean egindako lana nabarmendu dute bi kasuetan.**

Musika alorrean egindako lanarengatik eta ibilbidearengatik saritu dute CIT erakundea. Saria ematen duten bi erakundeek Tolosako erakundeak Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren antolaketan egiten duen lana nabarmendu dute. Domu Santu egunaren bueltan egiten da urteroko jaialdi hori, eta duela 43 urte abiatu zenetik munduko ahotsik onenak izan dira bertan; Lehiaketaren erakusleiho horretan abesbatza bakoitzak bere koru tradizioa eta a capella koru musika egiteko bere moduak erakusten ditu. Gainera, Euskal Herriko musika eta kultur tradizioa ezagutarazteko balio du Lehiaketak.

Jagoba Astiazaran musikari zestoarra, berriz, Vatikanoko II. Kontzilioak euskal musikan izan zuen eragina aztertzeagatik saritu dute; *Vatikano II. Kontzilioa eta euskal musika eta instrumentu tradizionalak* izena du bere lanak.

Vatikanoko II. Kontzilioak ateratako ondorioek eragina izan zuten euskal musikan eta eragin horren azterketan oinarritzen da ikerlan hori. Astiazaranen arabera, euskal apaizek euskal errepertorioa sartzeko eta parrokietan euskarazko musika sustatzeko baliatu zuten momentu hura.

Txistulari honek konposizioa ikasten du gaur egun Musikenen.

EHUk Donostian duen Auditorioan izan zen sari banaketa; Cristina Uriarte errektore-ordeak eta Jose Maria Echarri Orfeoiko presidenteak eman zituzten sariak.



# El CIT y Jagoba Astiazarán, premio Orfeón-UPV

**El Centro de Iniciativas de Tolosa (CIT) y el músico de Zestoa Jagoba Astiazarán recibieron el pasado mes de febrero el premio que otorgan conjuntamente todos los años el Orfeón Donostiarra y la Universidad Pública Vasca (UPV). En ambos casos, se ha querido resaltar el trabajo realizado en la investigación musical y en la promoción de la actividad musical.**

El CIT ha recibido el premio por su labor y trayectoria en el mundo musical. Las dos entidades que otorgan el galardón, han querido subrayar el trabajo realizado por el organismo tolosarra a través de la organización del Certamen Internacional de Coros. Este festival anual se celebra alrededor de la festividad de Todos los Santos, y desde su puesta en marcha hace 43 años, por Tolosa han pasado las mejores voces del mundo; el Certamen ha sido el escaparate donde cada coro ha expuesto su tradición coral y sus maneras de entender y hacer música coral a capella. Asimismo, el Certamen ha servido para dar a conocer la tradición musical y cultural del País Vasco.

El músico zestoarra Jagoba Astiazarán ha sido reconocido por su trabajo de investigación realizado sobre la influencia del Concilio Vaticano II en la música vasca, trabajo titulado como *Vatikano II. Kontzilioa eta euskal musika eta instrumentu tradizionalak.*

Este estudio se basa especialmente en el impulso que supuso para la música vasca las conclusiones del Concilio Vaticano II. Según Astiazarán, los sacerdotes vascos aprovecharon el momento para introducir repertorio vasco y para fomentar música en euskara en las parroquias.

Este txistulari actualmente estudia composición en Musikene.

El acto de entrega se celebró en el Auditorio de la UPV en Donostia, que estuvo presidido por su vicerrectora, Cristina Uriarte, y por el presidente del Orfeón, José María Echarri.

# Musika Astea Errenterian

**Errenteriako Musikaste 40. Musika Asteak proposamen interesgarriz eta erakargarriz betetako egitaraua aurkeztu du beste behin. Aurtengo gai nagusietako bat Francisco Escudero konpositorea izan da, bera jaio zela ehun urte betetzen diren honetan.**

Lehendabiziko egunean, Itziar Larrinaga musikologo arabarrak Francisco Escudero musikagilearen bizitza eta lanari buruzko hitzaldi bat eskaini zuen; 2002an hil zen Escudero. Egun berean, Maddi Oihenart kantari zuberotarrak parte hartu zuen Musikasten, eta Mauleko kantuaren berreskurapenaz eta bere hedapenaz mintzatu zen.

Hain zuzen ere azken egunean Escuderoren omenezko kontzertu bat eskaini zen eta bere *Mitoen Sinfonia* abestu zuten. David Azurzak konposatutako *Hurkus errementaria* obra ere estreinatu zen, eta Patxi Zubizarreta kontalariak, Orereta abesbatzak eta Krater Ensemble taldeak parte hartu zuten. 27 minutuko iraupena du obrak eta testua euskal ipuin batean oinarrituta dago; Joxe Mari Iturralde idazleak egokitu du testua. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan du obrak.

Musikastek abesbatzen eguna ere izan du. Aurten Suessatio Talde gasteiztarrak, Derioko gizonezkoen Ipar Alde abesbatzak eta Barañain abesbatzak parte hartu dute. Errenteriako Landarbaso eta Andra Mari abesbatzek amaiera eman zioten kontzertuari: Alexander Lesbordesen kantuak abestu zituzten, izan ere aurten ehun urte betetzen dira Lesbordes jaio zela.

**Info +**
www.musikaste.com



# Semana musical en Errenteria

**La 40 edición de la Semana Musical Musikaste de Errenteria ha vuelto a presentar un programa cargado de propuestas interesantes y atractivas. Uno de los puntos centrales este año ha sido el compositor Francisco Escudero, cuando se cumplen cien años de su nacimiento.**

El primer día la musicóloga alavesa Itziar Larrinaga ofreció una conferencia sobre la vida y obra del compositor Francisco Escudero, fallecido en 2002. El mismo día, la cantante zuberotarra Maddi Oihenart intervino en Musikaste para explicar la recuperación y la difusión de la canción de Maule.

Precisamente el último día se cerró el festival con un concierto homenaje a Escudero, en el que se interpretó su *Sinfonía Mítica*. También se estrenó la obra *Hurkus erementaria*, compuesta por David Azurza e interpretada por el narrador Patxi Zubizarreta, el coro Orereta y el Krater Ensemble. La obra tiene una duración de 27 minutos y está basada en un cuento vasco que ha adaptado el escritor Joxe Mari Iturralde. La obra ha contado con el apoyo de la Federación de Coros de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco.

Musikaste tuvo su día coral. Este año contó con la participación del grupo vitoriano Suessatio Taldea, Ipar Alde abesbatza de voces graves de Derio y la coral Barañain. Finalizaron el concierto los coros Landarbaso y Andra Mari de Errenteria, que interpretaron obras de Alexander Lesbordes, de quien se celebra el centenario de su nacimiento.

**Info +**
www.musikaste.com

## Munduko Abesbatzaren bira

Munduko Gazte Abesbatzak udako lanari ekingo dio berriro, iaz zailtasun ekonomikoak tarteko bertan behera geratu ondoren. Gazte Abesbatzak bira bat egiteko asmoa du abuztuan Zipren, Grezian eta Turkian. Aitor Eceiza eta Ainara Hernandez euskal abeslariek esperientzia horretaz gozatu ahal izango dute beste urtebetez. Munduko Gazte Abesbatza (WYC) Abesbatzen Nazioarteko Federazioak (IFCM) bultzatutako ekimena da eta hirurogei gazte abeslariz osatuta dago. Abesbatza abuztuan elkartuko da. Munduko 44 herrialdetako 188 eskaera jaso dituzte aurten, baina 34 bakarrik aukeratu dituzte. Antolakuntzak beste 28 abeslariri beste urtebetez Munduko Gazte Abesbatzan parte hartzeko aukera ematen die.

**Info +**
www.koralakeae.com
www.worldyouthchoir.org

## El Coro Mundial de gira

El Coro Mundial de Jóvenes vuelve a retomar su actividad de verano, tras ser suspendida el año pasado debido a las dificultades económicas. El WYC tiene previsto realizar una gira de conciertos en agosto por Chipre, Grecia y Turquía. Los coralistas vascos Aitor Eceiza y Ainara Hernández repetirán la experiencia un año más. El Coro Mundial de Jóvenes (WYC) es una iniciativa auspiciada por la Federación Internacional de Coros (IFCM) y está compuesto por sesenta jóvenes integrantes. El coro se va a reunir en agosto. Este año han recibido 188 solicitudes de 44 países del mundo, pero sólo 34 han sido seleccionados. La organización les brinda la oportunidad a otros 28 coralistas que participan un año más en el coro Mundial de Jóvenes.

**Info +**
www.koralakeae.com
www.worldyouthchoir.org

# Eskifaia Ejean saritua

**Hondarribiko Eskifaia abesbatzak bigarren saria irabazi du Ejea de los Caballeroseko Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan, Gorka Aierberen zuzendaritzapean. Irungo Ametsa Gaztek eta Durangoko Bartolome Ertzilla abesbatzak ere lehiaketan parte hartu zuten.**

Ejea de los Caballeroseko polikiroldegia entzulez bete zen apirilaren 13tik 15era bitartean estatuko koru onenak entzuteko. Parte hartu zuten 17 abesbatzetatik hiru euskal koruak ziren, baina Hondarribiko abeslariek bakarrik lortu zuten bigarren saria, eta hala, Zaragozako hirian lortu duten laugarren saria da. Javi Bustorekin lehen saria irabazi zuten 80ko hamarkadan, eta hirugarrena 2002an eta 2008an.

Ez zuten zorterik izan beste bi euskal abesbatzek. Jon Aizpururen abeslariak gaztetasunagatik nabarmendu ziren; Ion Ugarrizak zuzendutako Durangoko emakumezkoen koruak, berriz, zuzendariak berak konposatutako *Dicen* obra estreinatu zuen. Lehen saria Bartzelonako Arsinova koruarentzat izan zen.

Aipamen berezia egin nahi genioke Donostiako Orfeoiari, kontzertua eskaini baitzuen lehiaketa hasi baino lehenago; euskal musikagilen obrak eta zarzuela ezagunak kantatu zituzten Jose Antonio Sainz Alfaroren zuzendaritzapean.

**Gorka Aierbe,** Eskifaiako zuzendaria:

«Abeslariek ilusio handia izan dute»

**Nola sentitu zara Lehiaketan?**

Oso pozik. Ejean parte hartzen genuen bosgarren aldia zen, eta oker ez banago, beti jaso dugu sariren bat. Beraz, beti oso ongi sentitu izan gara Lehiaketa honetan. Baziren bi urte lehiaketa batean parte hartzen ez genuela eta gogor lan egin behar izan dugu, entsegu ordu asko, baina abeslariek ilusio handia izan dute lan honetan, eta ahalegin horrek gero isla izan du emaitzan.

**Zer esanahi du sariak?**

Harro egoteko modukoa da. Sari bat lortzen duzunean denen ahotan egoten zara egun batzuetan eta hori oso garrantzitsua da. Ate batzuk irekitzen zaizkizu eta indar handia ematen dizu etorkizunera begira.

**Ze asmo dituzue hurrengo hilabeteetarako?**

Gure urteko konpromisoei eutsi, hori ez baita gutxi, eta beharbada beste lehiaketa batean parte hartu. Orain oso animatuta gaude eta hori aprobetxatu egin behar da.

Info +

www.ejea.es




# Eskifaia premiado en Ejea

**El coro Eskifaia de Hondarribia, dirigido por Gorka Aierbe, ha logrado un segundo premio en el Certamen Internacional Coral de Ejea de los Caballeros. La coral Ametsa Gazte de Irún y el coro Bartolome Ertzilla de Durango también participaron en la competición.**

El polideportivo de Ejea de los Caballeros se llenó de espectadores del 13 al 15 de abril para escuchar a los mejores coros estatales. De los 17 coros que participaron tres eran agrupaciones vascas, pero sólo los coralistas de Hondarribia lograron un segundo premio, y de esta manera, es el cuarto galardón que obtienen en la ciudad zaragozana, ya que a comienzos de los 80 obtuvieron el primer premio con Javi Busto y el tercer premio en 2002 y 2008.

No hubo suerte para los otros dos representantes vascos. Los de Jon Aizpuru destacaron por la juventud de sus coralistas. El coro femenino de Durango dirigido por Ion Ugarriza estrenó la obra *Dicen* compuesta por el propio director. El primer premio fue para el coro Arsinova de Barcelona.

Mención especial para el Orfeón Donostiarra, que se encargó del concierto inaugural y interpretó bajo la batuta de José Antonio Sainz Alfaro un programa formado por obras de compositores vascos y conocidas zarzuelas.

**Gorka Aierbe,** director de Eskifaia:

«Los coralistas han puesto mucha ilusión»

**¿Cómo se han sentido en el Certamen?**

Muy contentos. Era la quinta vez que participábamos en Ejea, y si no me equivoco, siempre hemos obtenido algún premio. Por tanto, siempre nos hemos sentido muy bien en este Certamen. Hacía dos años que no competíamos en un certamen y hemos tenido que trabajar duro, muchas horas de ensayo, pero los coralistas han puesto mucha ilusión en ese trabajo, un esfuerzo que se ha visto reflejado luego en el resultado.

**¿Qué ha supuesto ser premiado?**

Nos enorgullece muchísimo. Cuando obtienes un premio estás en candelero durante algunos días y eso también es muy importante. Se te abren algunas puertas y sobre todo te da muchos ánimos de cara al futuro.

**¿Qué planes tienen para los próximos meses?**

Mantener nuestros compromisos anuales, que no es poco, y quizá participar en algún otro certamen. Ahora estamos muy animados y hay que aprovecharlo.

Info +

www.ejea.es



